



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko apirilaren 6a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Nafarroako 2009ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Gazteriari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (24. or.).
- Foru Legea, aldatzen duena Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (25. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 25. artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak erretiratu (26. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

- Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (27. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait espezie galiforme kontserbatzeko eta leheneratzeko neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (29. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatzeko eta garatzeko plan bat egin eta abian jartzeari buruz legebiltzar honek onetsitako ebazpena. Osoko Bilkurak onetsia (30. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertsolaritza kultur intereseko ondasun ez-material deklaratzeko espedientea has dezan. Osoko Bilkurak onetsia (31. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu-agentzien jarduera kontrola dezan. Osoko Bilkurak onetsia (31. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Ignazio etorbideko Jauregiko fatxadan ageri den Nafarroako armarría orde zezan. Osoko Bilkurak onetsia (32. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu-emanei ekin diezaien, txirrindularien 2012ko Espainiako Itzulia Nafarroan, Iruñean, has dadin. Osoko Bilkurak onetsia (32. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratzen du Euskalerría Irratiaren nahi gabeko irregulartasun-egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jarrera. Osoko Bilkurak onetsia (33. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa 2012 Plana bete dezan, Nafarroako ekonomía dinamizatzeko elementu gisa. Osoko Bilkurak bazter utzia (33. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Ministerio Fiskala premiatzen da justizia auzitegietan esku har dezan, Nafarroan atxilotutako pertsonak tratatu txar eta torturei buruz jakitera emandako testigantzak argitze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (33. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko ea toki entitateak finantzatzeko irizpideak zuzentzat eta egokitzen jotzen diren. Galdera erretiratzea (34. or.).
- Galdera, jakiteko ea udalek ematen dituzten zerbitzuak egokitzen jotzen diren ala haien eskumenak gehitu beharko liritekeen. Galdera erretiratzea (34. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzea. Osoko Bilkurak onetsia (35. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 2009ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2009ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako 2009ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaiatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen, hori guztia foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomía eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakotan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2009ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako izapideak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta izapidetua dago Nafarroako 2009ko kontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuari buruzko Erregelamenduaren 156. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egin dira Nafarroako 2009ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Haien edukia Nafarroako Gobernuak Interneten duen atarian (www.navarra.es) eta honako agiri eta euskarriotan bildu da:

– Paperezko argitalpen batean, non kontuak osatzen dituzten argibideen atalik nabarmenenen edukia eta laburpena azaltzen baitira: kontuak osatzen dituzten erakundeen aurrekontuetako likidazioak eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen alderdirik nabarmenenak. Sozietate publikoen kontuen laburpena dakarren agiria ere erantsia dago.

– Euskarri digital batean, non entitate eta sozietate publikoen kontuak modu luzean eta haien auditoretza-txostenak ageri baitira. Aurrekontuetako programen oroit-idazkiak ere sartuta daude euskarri horretan.

Gazteriari buruzko Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Gazteriari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Gazteriari buruzko Foru Legea

ATARIKO TITULUA: Xedapen orokorrak

- 1. artikulua. Helburua eta xedea
- 2. artikulua. Aplikazio esparrua
- 3. artikulua. Printzipio orokorrak
- 4. artikulua. Gazteen aukerak eta erantzukizunak

I. TITULUA: Eskumen administratiboak eta plangintza

I. KAPITULUA: Administrazio publikoen eskumenak

- 5. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak
- 6. artikulua. Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuaren eskumenak
- 7. artikulua. Toki entitateen eskumenak
- 8. artikulua. Elkarrizketa egituratua.

II. KAPITULUA: Gazteriaren arloko politiken plangintza eta ebaluazioa

- 9. artikulua. Gazteriaren Foru Estrategia
- 10. artikulua. Gazteria planak
- 11. artikulua. Gazteriaren arloko politiken ebaluazioa

II. TITULUA: Gazteriaren arloko politikak

- 12. artikulua. Gazteriaren arloko politikak lehenestea
- 13. artikulua. Gazteriaren arloko politiken tipologia

I. KAPITULUA: Gazteriaren arloko berariazko politikak

- 14. artikulua. Gazteriaren arloko berariazko politikak

II. KAPITULUA: Zeharkako politikak

1. atala: Gazteriaren arloko oinarritzko politikak

- 15. artikulua. Gazteak eta osasuna
- 16. artikulua. Gazteak eta kirola
- 17. artikulua. Gazteak eta bide segurtasuna
- 18. artikulua. Gazteak eta pertsonen arteko harremanak

2. atala: Aukerak sustatzeko politikak

- 19. artikulua. Gazteak eta hezkuntza
- 20. artikulua. Gazteak eta enplegua
- 21. artikulua. Gazteak eta ekimena
- 22. artikulua. Gazteak eta familia
- 23. artikulua. Gazteak eta etxebizitza
- 24. artikulua. Gazteak, mugikortasuna eta nazio-artekotzea
- 25. artikulua. Gazteak eta gizarte zerbitzuak
- 26. artikulua. Gazteak eta landa ingurunea

3. atala: Gazteen irispidean jarri beharrekoen gaineko politikak

- 27. artikulua. Gazteak eta kultura
- 28. artikulua. Gazteak eta ingurumena
- 29. artikulua. Gazteak eta teknologia berriak
- 30. artikulua. Gazteak eta kontsumoa

4. atala: Gazteek parte hartzeko politikak

- 31. artikulua. Gazteak eta herritarren parte-hartzea
- 32. artikulua. Gazteak eta boluntarioritza
- 33. artikulua. Gazteak eta nazioarteko parte-hartzea
- 34. artikulua. Gazte elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 35. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua.
- 36. artikulua. Gazteriaren eskualdeko eta tokiko kontseiluak.

III. TITULUA: Baliabideak eta finantziarioa

- 37. artikulua. Finantziario iturriak eta printzipioak gazteriaren arloan

– 38. artikulua. Erabiltzaileek finantziazioan parte hartzea.

IV. TITULUA: Ikuskapena eta zehapen araubidea

I. KAPITULUA: Gazteriaren arloko ikuskapena

– 39. artikulua. Ikuskatzailearen eskumenak eta eginkizunak

– 40. artikulua. Ikuskatzaileak

II. KAPITULUA: Zehapen araubidea

– 41. artikulua. Gazteriaren arloko arau-haustekak

– 42. artikulua. Zehapenak

Lehen xedapen gehigarria. Gazteriaren Plan Integrala

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren finantziazioa

Hirugarren xedapen gehigarria. Kontsultako eta elkarrizketa egituratuko prozesuak.

Xedapen iragankor bakarra. Aplikatu beharreko erregelamendu-araudia

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indarrik gabe uzten diren xedapenak

Azken xedapenetako lehena. Erregelamendugarapena

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea

ZIOEN AZALPENEA

1

Espainiako Konstituzioaren 48. artikulua xedatzen du botere publikoek baldintza egokiak sustatuko dituztela gazteriak garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean askatasunez eta eraginkortasunez parte har dezan. Konstituzioaren aginduari jarraikiz, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 44.18 artikuluan, Nafarroako Foru Komunitateari esleitzen dio, osorik, gazteriaren arloko politikaren eskumena.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen horri loturik garatu du gazteriaren arloko politika eta, horretarako, araudi batzuk onetsi ditu, bai aipatu politika gauzatzeko beharrezkoa den administrazio egiturari dagokionez, bai hori osatzen duten zerbitzuei dagokienez.

Araudi horien artean aipatzekoak dira honako hauei buruzkoak: gazteentzako informazio zerbitzuak, gazteekin egiten diren jarduerak, Astialdiko Eskolak, astialdirako hezkuntzako profesionalen prestakuntza eta gazteen parte-hartzea gazteen

entitateen bitartez eta, bereziki, gazteen elkarrean bitartez.

Gazteria izan da, halaber, Europar Batasunak prestatutako zenbait dokumentu eta planen helburua.

Lisboako Estrategia berrikusiak zehaztutako Europako garapen planaren esparruan, Gazteriaren arloko Itun Europarra 2005. urtean erantsiz bideratu zen gazteriaren arloko ekintza.

Geroago, Batzordeak Komunikazio hau eman zuen 2009ko apirilaren 27an: “Europar Batasunaren estrategia bat gazteriarentzat: inbertsioa eta gaikuntza. Koordinazioko metodo ireki berritu bat gazteen erronkei eta aukerei heltzeko”. Komunikazio horrek lehentasunez jotzen zituen gazteak Europar Batasunaren ideia sozialean, alegia, gizartearentzako ezinbesteko baliabide.

Gaur egun, Europar Kontseiluak gazteriaren arloko lankidetzaren esparraren esparru berrituarri buruz (2010-2018) 2009ko azaroaren 27an emandako Ebazpena da eredu berri bat zehazten duena; etorkizun hurbilean, orain prestakuntza prozesuan dagoen 2020 Estrategiak gazteen prestakuntzan, enpleguan eta mugikortasunean izanen du ardatza.

2

Azken urteotan gizartearen izan diren aldaketa prozesuek ekarri dituzten erronka eta aukera berriak erantzuteko beharretik sortu da Gazteriari buruzko foru lege hau. Aldaketa horiek gazteak ukitzen dituzte nabarmenki, eta behar berri batzuk dituen gizarte ingurune bat eratu dute. Behar horiei zeharka eta koordinaturik heldu behar zaie orain.

Bilakaera izan da egitura demografikoetan, biztanleria pixkanaka zahartzen joan baita; aldatu egin dira familia egiturak eta nabarmen aldatu da lan merkatua, gazteak geroz eta beranduago iristen baitira lan merkatu horretara eta hori gazteen emantzipaziorako oztopo baita. Horrekin batera, gazteek denbora gehiago pasatzen dute prestakuntzan eta, bestalde, gehiagok uzten dute goiz eskola.

Aldaketa horiek, besteak beste, erakusten dute gazteek zailtasunak dituztela autonomia lortzeko eta beren bizitzak kudeatzen dituzten eta gizartearen arduraz parte hartzen duten pertsona helduak izatera iristeko.

Gainera, globalizazioak hazkundera eta enplegua fabora baditzaie ere, arazoak sortu ahal zaizkie egoera zaurgarrienean dauden langileei, eta gazteek zailago izan dezakete emantzipatzeko

bidea, gaur egungo krisi ekonomiko eta sozialak erakusten duen bezala.

Foru lege honek interes berezia jarri du Nafarroako gazteen autonomia faboratzeko ahaleginean, gazteek bizitzarako proiektu propio bat era dezaten, aukera pertsonaleko askatasunean eta antolamendu juridikoak onartu eta babesten dituen eskubide eta erantzukizunetan oinarriturik.

Eremu horretan lan egin behar dute administrazio publikoek, gazteek autonomiaz garatzeko aukera izan dezaten baldintza egokiak faboratuz eta gazteei bizitzarako proiektu propioa eratze bidean lagun eginez, eta, horrekin batera, aukerak garatzeko eta norik bere erantzukizunak hartzeko ingurune egoki eta berdintasunezkoak faboratuz, arreta berezia jarrita egoera zaurgarrienean dauden pertsonengan edo taldeetan.

Azaldu diren inguruabar horiek gazteriaren arloan zeharkako politika ezartzera behartzen dituzte administrazio publikoak. Politika horren helburu edo hartzaile gazteria izanen da eta, arlo horretan garatu den berariazko politikan oinarriturik, gazteak ukitzen dituzten jarduketa publikoko alderdi desberdinak bilduko ditu.

Hala, gazteriaren arloko politiken eta beste sektore batzuetako arteko lankidetzak bultzatuko da, hala nola hezkuntzaren, enpleguaren, barne-hartzearen eta osasunaren sektoreetakoak, horrela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren barruan gazteriaren inguruko eskumena duen departamentuak koordinatu eta bultzaturik, gazteriaren arloan berdintasunezkoak eta zeharkakoak diren politikak gauzatuko direla berma dadin. Politika horiek eragina izanen dute Nafarroako gazteriaren bizi baldintzetan eta aukeretan eta gazteen garapenean.

Halaber, gazteriaren arloko zeharkako politikak ongi diseinatu, gauzatu eta jarraitzeko beharrezkoa izanen da gazteriaren arloan aritzen diren gainerako instituzio eta erakunde publiko zein pribatuen parte-hartze aktiboa eta, orobat, gazteen beren parte-hartzea. Azken horiei dagokienez, garrantzi berezia du gazteen elkarte mugimenduak eta, horren barruan, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak, horixe baita gazteek, gazteen elkarte bidez, gizartean duten ordezkariak eta parte-hartze organo nagusia.

Foru lege honek bermatu nahi du gazteek parte hartuko dutela politika horien prestakuntzan, eta, horretarako, ingurune egokiak faboratzen ditu, elkarriketa egituratu eta iraunkorra funtsezko tresnatzat hartzen du, arreta jartzen du talde zaurgarrienean edo arriskuan daudenean, eta emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren

printzipioa txertatzen du emakume gazteen parte-hartze politiko eta soziala bultzatzeko xedez.

Foru lege hau onetsiz, Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartzen ditu jarraibide europarrak eta bat egiten du beste autonomia erkidego batzuetan bideratutako joerarekin. Hala, goratu egin du gazteriaren arloko xedapenen arau maila eta beste gai batzuk arautu ditu, gazteriaren arloko politika integral eta eraginkorra lortu izateko. Horrela, aintzat hartzen da gazteek gure gizartearentzat duten garrantzia, eta araudi sendoa sortu da berdintasunezkoak eta integralak diren politikak abian jartzeko gazteriaren arloan, gazteria autonomo eta arduratsuaren aldekoak betiere.

3

Foru lege honek 42 artikulua ditu, atariko titulu batean eta lau titulutan banatuta, hiru xedapen gehigarriak, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

1) Atariko tituluan foru legearen "xedapen orokorrak" arautzen dira. Horren helburua da Nafarroako Foru Komunitatean gazteriaren arloko berariazko politika bat arautzea, baita zeharkako politika bat ere, hartzaile gazteria izanen duena.

Foru lege honen xedea da gazteen autonomia faboratzea gazteriaren arloan berdintasunezko politika sustatuz; politika horrek norbanakoaren garapenerako, sustapenerako eta parte-hartze sozialerako baldintza egokiak bermatu behar ditu eta, horrela, herritar gazte konprometitu, arduratsu, oso eta aktiboak lortzeko bidea jarri. Zentzu honetan xedea du gazteen emantzipazioa bultzatzea eta bideratzea, elkartasuna gauzatzea, bai eta aukeren berdintasuna ere, arreta berezia eskainiz gazte behartsuenei, eta pertsonen parte-hartze soziala sustatzea, beren arazo eta beharrei buruzko kontzientzia har dezaten bultzatuz; gazteen sektoreetan aniztasuna lantze eta gazte jendearen bizi kalitatea hobetzea, gizarte demokratiko, zuzen eta solidarioa bilatuz, non aisiak gazteriaren beharrei erantzunen baitie.

Foru legearen aplikazio esparrua zabala da, Nafarroako administrazio publikoak ez ezik, gazteen arloan zuzenean edo zeharka aritzen den edozein pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuk egiten dituen jarduerak edo zerbitzuak ere sartzeko baitira esparru horretan. Foru legearen ondorioetarako, gazte izaera definitzen da, autonomia esparruan egin den moduan eta Europar Batasunaren jarraibideekin bat.

Titulu horretan printzipio orokorrak aipatzen dira, eta gazteriaren arloko politiken printzipio

gidariak eta arlo horretako jarduketa publikoa gidatuko duten printzipioak bereizten dira.

Atariko tituluaren bukaeran aipatzen dira gazteek beren gain hartu behar dituzten erantzukizunak eta eskura dituzten aukerak.

2) I. tituluaren izena “Eskumen administratiboak eta plangintza” da, eta bi kapitulutan banatuta dago.

I. kapituluan Nafarroako administrazio publikoen eskumenak arautzen dira; bereizi egiten dira Foru Komunitateko Administrazioarenak, eta horren barnean gazteriaren arloko departamentuarenak, eta Nafarroako toki entitateenak.

II. kapitulua gazteriaren arloko politiken plangintzari eta ebaluazioari buruzkoa da. Horretan aipatzekoa da Gazteriaren arloko Foru Estrategia, dokumentu horretan jasotzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteriari buruz dituen jarraibide orokorrak, Nafarroako Gobernuak onetsi beharrekoak, eta gazteria planak, Nafarroako edozein administrazio publikok onets ditzakeenak. Kapitulua bukatzen da gazteriaren arloko politiken eraginkortasuna eta kalitatea ebaluatzeko sistema bat prestatu eta ezartzeari buruzko aipamenarekin.

3) II. tituluak “Gazteriaren arloko politikak” arautzen ditu. Gazteriaren arloko politikak lehenesteari eta politika horien tipologiari buruzko bi artikulurekin hasten da. Politika horiek berariazkoak eta zeharkakoak izan daitezke. Mota horietako bakoitzari buruzkoak dira titulua osatzen duten bi kapituluak.

Zeharkako politikei dagokienez, honela banatzen dira: gazteriaren arloko oinarritzako politikak, aukerak sustatzeko politikak, gazteen irispidean jarri beharrekoen gaineko politikak eta, azkenik, gazteek parte hartzeko politikak. Mota horietako bakoitza atal batean araututa dago.

4) Baliabideak eta finantziazioa III. tituluaren arautzen dira, eta erabiltzaileek gazteentzako jarduera, zerbitzu edo instalazioen finantziazioan duten parte-hartzea nabarmendu behar da. Parte-hartze horrek ezin du gainditu horien benetako kostua administrazio publikoek ematen dituztenean.

5) Testu artikuluduna “Ikusapena eta zehapen araubidea” izeneko IV. tituluarekin bukatzen da, eta bi kapitulutan banatuta dago.

I. kapitulua gazteriaren arloko ikusapenari buruzkoa da, eta ikuskatzeko ahalmena gauzatzeari lotutako ohiko aurreikuspenak jasotzen ditu.

II. kapituluak zehapen araubidea arautzen du, arau-hauste arin, larri eta oso larriak bereizten ditu eta arau-hausleen definizio zehatza ematen, bai eta ezar daitezkeen zehapenena ere.

6) Xedapen gehigarriek Nafarroako Gobernuaren agindu bat ezarri dute, Gazteriaren Plan Integrala prestatu eta abian jar dezan foru legeak indarra hartu eta urtebeteko epean; xedapen gehigarriek, halaber, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren finantziazioa gaurkotu egiten dela ezartzen dute, eta Nafarroako Gobernuari agintzen diote kontsultako eta elkarrizketa egituratuko prozesuak ezar ditzala erregelamendu-garapen baten bitartez.

Xedapen iragankor bakarrak aplikagarritzat jotzen ditu foru legeak indarra hartzean indarrean dauden erregelamendu-arauak, baldin eta indargabetzen ez badira eta foru legean ezarritakoaren kontrakoak ez badira.

Xedapen indargabetzaile bakarrak foru legean ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapenak indargabetzeko aurreikuspen orokorra jasotzen du.

Azkenik, azken xedapenetako lehenak Nafarroako Gobernuari eta gazteriaren arloan eskuduna den departamentuko titularrari ahalmena ematen die foru legea erregelamendu bidez garatzeko, eta azken xedapenetako bigarrenak foru legeak indarra noiz hartuko duen ezartzen du.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua eta xedea.

1. Foru lege honen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean gazteriaren arloko berariazko politika bat arautzea, baita zeharkako politika bat ere, hartzaile gazteria izan den duena.

2. Foru lege honen xedea da gazteen autonomia faboratzea gazteriaren arloan berdintasunezko politika sustatuz; politika horrek norbanakoaren garapenerako, sustapenerako eta parte-hartze sozialerako baldintza egokiak bermatu behar ditu eta, horrela, herritar gazte konprometitu, ardurasu, oso eta aktiboak lortzeko bidea jarri.

Foru lege honen ondorioetarako, autonomiatzat jotzen da bizitzarako proiektu propio bat eratzeko gaitasuna, aukera pertsonaleko askatasunean eta antolamendu juridikoak onartu eta babesten dituen eskubide eta erantzukizunetan oinarritutako dena; antolamendu juridikoak ezartzen dituen betekizunak betetzea ere izanen da oinarri.

3. Foru lege honek honako xedeak dauzka emakumeen eta gizonen arteko elkartasun efektiboa gauzatzeko, bai eta aukeren berdintasuna ere, arreta berezia eskainiz gazte behartsuenei, eta pertsonen parte-hartze soziala sustatzea, beren arazo eta beharrei buruzko kontzientzia har dezaten bultzatuz; gazteen sektoreetan aniztasuna lantzea eta gazte jendearen bizi kalitatea hobetzea, gizarte demokratiko, zuzen eta solidarioa bilatuz, non aisiak gazteriaren beharrei erantzunen baitie.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Foru lege hau honako hauei aplikatuko zaie:

a) Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak.

b) Nafarroako Foru Komunitatean gazteekin zuzenean edo zeharka lotutako jarduerak edo zerbitzuak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuak.

c) Gazteek legez eraturako elkarteei eta beste entitate batzuei, baldin eta horien egoitza eta jarduketa esparrua Nafarroako Foru Komunitatean badaude.

2. Foru lege honen ondorioetarako, 14 urtetik 30 urtera bitarteko adina, biak barne, duten pertsona fisikoak hartzen dira gaztetzat.

Hori hala izanik ere, beste adin muga batzuk, gutxienekoak eta gehienekoak, ezarri ahalko dira erregelamenduz, zenbait jarduera, zerbitzu eta programatan parte hartzeko, baldin eta horien izaera kontuan hartuta egokia dela uste bada.

3. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Gazteriaren arloko politikek printzipio hauek izanen dituzte oinarri: unibertsaltasuna, balio demokratikoen sustapena, aukera berdintasuna, gizartratzea eta gazteen egoerari buruzko arreta integrala.

2. Gazteriaren arloko jarduketa publikoak printzipio gidari hauek izanen ditu: erantzukizun publikoa, koordinazioa eta zeharkakotasuna, administrazioen arteko lankidetzeta eta elkarlana, gazteen parte-hartzea, hurbiltasuna eta deszentralizazioa, ekintza positiborako neurriak eta lurralde- zein hizkuntza-aniztasunaren babesa, gaztelania eta euskara Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza berekiak direla kontuan hartuz, legedi indardunaren barruan.

4. artikulua. Gazteen aukerak eta erantzukizunak.

1. Gazteek, Konstituzioak eta antolamendu juridikoak onartzen dituzten eskubideez gainera, foru lege honetan aipatzen diren aukerak ere izanen

dituzte, hautatzeko duten eskubidearen esparruan, horrela autonomia lortu eta norbanakoaren garapenerako, sustapenerako eta parte-hartze soziale-rako baldintza egokiak sortu ahal izateko.

2. Gazteek, antolamendu juridikoak ezartzen dituzten betebeharez gainera, erantzukizun hauek dituzte, besteak beste:

a) Beren osotasuna errespetatzea, bizitzeko ohitura osasuntsu eta arduratsuak izanik.

b) Bizitzarako proiektua eraikitzea funtsezko balioei jarraituz, pertsonalki eta sozialki garatzeko aukerak aprobetxatuz.

c) Nork bere talentua eta gaitasunak garatzea, ahaleginaren bidez, eta irekita egotea ezagutzaren, sormenaren, enpresa-ekimenaren, giza harreman eta balioen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrean.

d) Gizalegezkoa eta parte-hartzailea den jokabidea izatea, gizartean elkarrekin bizitzeak eskatzen duenarekin bat, hain zuzen ere berdintasunean, tolerantzian eta gainerakoen eskubideen errespetuan oinarriturik.

e) Berdintasunezko eta errespetuzko jokabidea izatea arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial dela eta.

f) Garapen ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalerako dagozkien erantzukizunak beren gain hartzea, gizarte justuagoa eta kohesionatuagoa lortzen laguntzeko.

g) Ingurumena mantentzen laguntzea, errespetatuz eta zaintzan eta hobekuntzan lagunduz.

h) Aisia eta astialdia eta teknologia berriak arduraz erabiltzea.

i) Adingabeen kasuan, derrigorrezko hezkuntzako ikasketak egitea, beren prestakuntzari eta beren nortasuna erabat garatzeari begira; ikastetxera joateko eta bertako bizikidetzeta arauak errespetatzeko betebeharra ere izanen dute.

j) Onartzen zaizkien eskubideen jabe izateagatik eta horiek erabiltzean dituzten betebeharrak, obligazio eta erantzukizunak beren gain hartu eta betetzea.

I. TITULUA**Eskumen administratiboak eta plangintza****I. KAPITULUA****Administrazio publikoen eskumenak**

5. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak hauek dira:

a) Gazteen eskubideak sustatzea Nafarroako Foru Komunitatean, eta horiek babestea autonomia lortzen laguntzeko.

b) Gazteriaren arloko politikaren jarraibide orokorrak ezartzea Nafarroako Foru Komunitatean.

c) Koordinazioz eta elkarlanez jokatzeko administrazio publikoekin lurralde maila desberdinetan, baita entitate publiko eta pribatuekin ere, gazteriaren arloko politikak garatzeko.

d) Gazteriaren irudi kolektiboa zaintzea, estereotipo sexistak edo beste edozein estereotipo negatibo desagerrarazteko lan eginez.

6. artikulua. Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuaren eskumenak.

1. Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuari dagokio gazteen eskubideak babestea, garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen askatasunez, eraginkortasunez eta gizonen eta emakumeen berdintasunean oinarrituz parte hartzearen bitartez. Horretarako eskumen hauek esleitu zaizkio:

a) Gazteriaren arloko politika integral eta berdintasunezkoak planifikatzea.

b) Gazteriaren arloko berariazko politikak kudeatzea eta zeharkako politikak koordinatzea.

c) Foru lege honetan ageri diren jarduketan garapenerako ezarritako baliabide, zerbitzu eta prozeduren eraginkortasuna eta kalitatea ebaluatzeko sistema bat ezartzea.

d) Ikuskapen lana egin eta zehapen ahalmena gauzatzeko, gazteriaren arloko zentro, instalazio, zerbitzu eta programei dagokienez.

e) Gazteriaren arloko profesionalez arduratzea eta horien onarpena eta prestakuntza sustatzea, lanbide kualifikazioei buruzko araudi indardunari jarraikiz eta hezkuntza ez-formalaren bitartez.

f) Gazteekin eta horiek ordezkatzeko dituzten taldeekin elkarrikeria egituratua izatea, eta kontsulta prozesuak ezarri ahal izatea gazteriarentzat garrantzitsutzat jotzen diren gaietan.

g) Foru lege honetan eta gainerako antolamendu juridikoan esleitutako gainerako eskumenak, bai eta gazteriaren arloan foru lege hau betetzeko beharrezkoak direnak ere, Nafarroako Gobernuari edo beste administrazio publiko batzuei berariaz esleitura ez badaude.

2. Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuan ezarriko da foru lege honetan xedatutakoa betetzeko egokitzat jotzen den antolamendu administratiboa, betiere administrazio elektronikoren, administrazioa erraztearen eta zerbitzu publikoen kalitatearen arloetan jarraitzen diren printzipioekin bat.

3. Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuak erregelamendu bidez sortu eta zehaztu ahalko ditu honako hauen eginkizunak, osaera eta funtzionamendu arauak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko Gazteriaren Departamentuarterako Batzordea, gazteei zuzendutako zeharkako politikak koordinatu eta bultzatzeko tresna gisa.

b) Gazteriaren Erakundearterako Kontseilua, gazteriari buruzko politika integralaren arloko kontsulta eta aholkularitzarako organo gisa.

c) Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki entitateek gazteriaren arloan lankidetzako administratiboa izateko organo gisa.

d) Nafarroako Gazteriaren Behatokia, organo tekniko prospektibo gisa, zeinaren xedea baita beharrezkoak diren ezagutzak ematea, adierazlearen ebaluazioaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteen egoera hobetzeko politikak ezar ditzan.

4. Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuak aintzat hartu ahalko du, publikoki, pertsonen, taldeen, erakundeek edo instituzioek, publiko zein pribatuek, egindako lanaren eredugarritasuna, betiere lan horrek gazteen parte-hartzea, autonomia eta bizi kalitatea bultzatzen baditu. Gazteriaren arloko sari eta golardoak emanen dira horretarako.

7. artikulua. Toki entitateen eskumenak.

1. Nafarroako toki entitateek gazteriaren arloko eskumena izanen dute beren lurralde eremuan, eta eginkizun hauek beteko dituzte:

a) Beren lurralde eremuan gazteriaren arloko plan eta politikak prestatzeko bultzada ematea.

b) Beren lurralde eremuan gazteen inguruko jarduerak eta programak garatu eta koordinatzea.

c) Gazteentzako informazio, orientazio, aholku eta laguntza zerbitzuak ematea, herri bakoitzeko beharren arabera.

d) Gazteentzako instalazio eta espazio publikoak sor daitezela sustatzea.

e) Gazteen parte-hartzea sustatzea, beren lurralde eremuan gazteen elkarte mugimenduari lagunduz, Gazteriaren arloko Tokiko Kontseiluen bitartez bidezkoa denean, eta parte hartzeko beste modu berri batzuk erabiliz.

f) Gazteriaren arloan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eskuordetutako eskumenak kudeatzea, toki araubideko legedian ageri den moduan.

g) Foru lege hau garatzean eskuordetzen edo esleitzen den beste edozein eskumen.

2. Nafarroako Foru Komunitateko gazteen aukera berdintasuna lortzen laguntzeko xedez, gazteriaren arloan eskuduna den departamentuak laguntza eta aholkuak emanen dizkie Nafarroako toki entitateei gazteriaren arloko politikak sustatzeko lanean, honako alderdi hauetan zehazki: gazteriaren arloko tokiko planak prestatzea, gazteentzako instalazioak sustatzea, gazteentzako zerbitzu eta jarduerak garatzea prebentzioaren arloan, informazioa, prestakuntza eta mugikortasuna, bai eta gazteen eskaerei erantzuten dieten beste arlo batzuk ere.

8. artikulua. Elkarrizketa egituratua.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, gazteriaren arloko politikak garatzeko, kontsulta-prozesuak burutuko ditu gazteekin, eta elkarrizketa egituratua taxutuko du Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin eta legez aitorturiko beste gazte erakunde batzuekin, garrantzitsutzat jotzen diren gaitan.

II. KAPITULUA

Gazteriaren arloko politiken plangintza eta ebaluazioa

9. artikulua. Gazteriaren Foru Estrategia.

1. Gazteriaren Foru Estrategia dokumentu bat da, zeinean biltzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteriaren arloan dituen jarraibide orokorrak. Bertan jaso behar dira Nafarroako gazteriak duen egoeraren analisia eta foru lege honetan aipatzen diren gazteriaren arloko politiken garapena bideratzeko ildoak, Europako eta nazioarteko jarraibideekin bat beti. Nafarroako administrazio publikoek onesten dituzten gazteriaren inguruko planek estrategia horren edukia errespetatu behar dute.

2. Gazteriaren Foru Estrategia onestearekin foru lege honetan ezarritako helburuak lortu nahi dira. Honako hauek dira horren printzipio gidariak:

a) Gazteak gizartean errazago txertatzea eta bertan erabat parte hartzea.

b) Gazteen autonomia hobetzea, beren talentua eta gaitasuna ahalik eta gehien garatzeko babesa emanez, aukera berdintasunean betiere, eta prozesuan duten erantzukizuna bultzatuz.

c) Gazte politikan esku hartzen duten eragile-entzako lankidetzak.

d) Gazteak gizartearen baliabide bat direla onartzea eta herrialdearen garapen ekonomikoan sartzea.

3. Hori onestea Nafarroako Gobernuari dago- kio, gazteriaren arloan eskuduna den departamentuko titularrak proposaturik, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari kontsulta egin ondoren eta gazteak ordezkatzeko erakundeek, departamentu horrek egokitzen jotakoek, esaten dutena entzun ondoren.

4. Lau urteko indarraldia izanen du, baina Nafarroako Gobernuak edozein unetan berrikusi ahal izanen du beharrezkoa irudituz gero.

5. Kontsulta eta parte-hartze prozesuen barruan, diagnosi-azterlan bat eginen da gazteen egoerari, arazoei, eskakizunei eta gehienek dituzten beharrei buruz.

10. artikulua. Gazteria planak.

1. Nafarroako administrazio publikoek beren lurralde esparruko gazteria planak onetsi ahal dituzte. Plan horiek autonomia erkidegokoak edo toki entitatekoak izan daitezke, eta beren xedea izanen da Gazteriaren Foru Estrategia aplikatu eta garatzea; gazteriaren erronkei eta aukerei erantzuteko lehentasunak ezarriko dituzte, emakumeen eta gizonen berdintasuna kontuan hartuta.

2. Onesten diren Gazteria Planek foru lege honen 3. artikuluan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte eta baldintza hauek bete, gutxienez:

a) Plan integral, unibertsal eta zeharkakoak izan behar dute, eta gazteria ukitzen duten alderdi eta arazo guztiak barnean hartu.

b) Horiek prestatzean gazteen eta gazte entitateen parte-hartzea bermatu behar da, behin betiko onetsi aurretik, elkarrizketa egituratuaz baliaturik.

c) Honakoak eduki beharko dituzte: ekonomiko baloratuak oroit-idazki bat, garapenari

buruzko egutegi bat eta lortu nahi diren helburuetarako nahikoa eta egokia den finantziazioa.

d) Planean ezarritako politiken eta ekintzen ebaluazio eta jarraipen etengabea egin beharko da. Halaber, ebaluazio sakona egingen da planaren iraupenaren erdira iristeko unean.

3. Nafarroako Foru Komunitateak beste arlo batzuetan garatzen dituen planek, gazteen egoerarekin lotuta badaude, adinaren ikuspegia hartuko dute kontuan.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak toki entitateei bultzada eta laguntza emanen die tokiko gazteria planen prestaketan.

11. artikulua. Gazteriaren arloko politiken ebaluazioa.

Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko Gazteriaren Departamentuarterko Batzordearekin batera, urtero Nafarroako Parlamentuari berariazko plan bat aurkeztuko dio foru lege honetan aurreikusitako helburuak betetze aldera, gazteriaren arloko politikak aurrera zein mailatan egiten duten egiaztatzeko.

II. TITULUA

Gazteriaren arloko politikak

12. artikulua. Gazteriaren arloko politikak lehenestea.

1. Gazteriaren arloko politikak gazteen beharrei erantzuten diete, gazteriaren etapa desberdinetako berezitasunen arabera, une bakoitzean haiei legez onartutako gaitasuna kontuan hartuta.

2. Gazteriaren arloko politikak gazteak hautatzeko duen askatasuna babesteko dute, baita aukera berdintasuna eta gazteen aniztasunarekiko arreta ere, talde ahulenetan arreta berezia jarriz, eta, bestalde, ekimena, talentua, ahalegina, konpromisoa eta erantzukizuna garatzeko balioak sustatuko dituzte.

3. Alde horretatik, foru lege honetan agertzen diren neurriek honako hauek sustatuko dituzte:

a) Kalitateko hezkuntza eta bizi osoko prestakuntza.

b) Hizkuntzak ikastea.

c) Gazteen mugikortasuna, Europako eta nazioarteko esparruetan, ikaskuntzari, lan arloari, aisiari, solidaritateari eta kontzientzia orokorra sortzei begira.

d) Kalitateko enplegua, enpresa-ekimena eta enpresa gazteen sorrera.

e) Sormena, artea, berrikuntza eta ikerketa.

f) Emantzipazioa, etxebizitza lortzea eta bizitza pertsonala, familiarra eta profesionala bateratzea.

g) Bizimodu osasuntsua eta ongizatezkoa, horretarako kirola, aisia, kultura eta ohitura onak bultzatuz.

h) Parte-hartze soziala eta pertsonen arteko kalitateko harreman inguruneak.

4. Arreta jarriko da, bereziki, gazteek hezkuntzaren, enpleguaren eta osasunaren esparruetan dituzten arriskueta, eta berariaz sustatuko dira urte gutxieneko gazteei zuzendutako sentsibilizazio eta babes programak, pertsona horien alderdi zaurgarrietan arreta jarriz horrela.

5. Foru lege honen ondorioetarako, ez dira bereizkeriatzat joko, adin tarteetan eta egoera pertsonalaren arabera tratamendu berezia aurreikusi arren, justifikazio objektibo eta arrazoizkoa duten neurriak. Neurri horien artean sartzen dira ekintza positiboan oinarrituta daudenak eta benetako berdintasuna, bereziki emakume eta gizone-na, lortzera bideratzen direnak.

13. artikulua. Gazteriaren arloko politiken tipologia.

Gazteriaren politikak bi kategoriatan bana daitezke:

a) Berariazko politikak: gazteriaren arloan eskuduna den departamentuaren eskumen direnak, nagusiki eta lehentasunez.

b) Zeharkako politikak: beste departamentu batzuen eskumen izanik gazteengan eragina duten alderdiei buruzkoak direnak, zeharkakotasunaren printzipioa oinarri dutenak, eta gazteriaren arloan eskuduna den departamentuaren lankidetzarekin gauzatuko direnak.

I. KAPITULUA

Gazteriaren arloko berariazko politikak

14. artikulua. Gazteriaren arloko berariazko politikak.

Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuak gazteriaren arloko berariazko politikak garatuko ditu, honako hauen inguruan:

a) Gazteentzako informazioa eta aholkularitza, hau da, gazteei orientazioa eta aholkuak modu integralean ematea, horrela aukera gehiago sortuz eta garapen pertsonalerako erabaki libre eta arduratsuak hartzen lagunduz. Hori guztia gazteentzako informazio zerbitzu onartuen bitartez.

b) Gazteriaren arloko hezkuntza ez-formala, hau da, pertsonaren garapena faboratzen duten jarduera ez-arautuen multzoa. Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskolak eta Astialdiko Eskolek eman ahalko dute.

c) Gazteentzako beste zerbitzu batzuk, gazteen garapena eta autonomia faboratuko dutenak eta, horien artean, gazte txartelak, gazteek aukera izan dezaten zerbitzu, produktu eta instalazioak baldintza hobeto erabiltzeko.

d) Gazteentzako jarduerak, gazteentzako ekintza multzo bat zeinen helburua baita gazteen gizarte harremanak faboratzea eta haien garapen pertsonalerako lagungarri gertatzea; jarduera horiek, aldi berean, gazteen parte-hartzerako, inklusiorako eta sozializatorako bide izanen dira. Halakotzat joko dira, besteak beste, honako hauek:

d.1.) Mugikortasuneko jarduerak, eguneroko ingurunea utzi eta beste batera joatea ekartzen dutenak, Estatuan bertan izan edo nazioartean, horrela beste toki, hizkuntza eta kultura batzuk ezagutzeko, beste gazte batzuekin batera bizitzen ikasteko edo solidaritatea bultzatzeko.

d.2.) Aisiako eta astialdiko jarduerak, eguneroko arduetatik kanpo eta josteta, prestakuntza edo gizarte alderdiei lotuta egiten direnak.

d.3.) Sormena eta sorkuntza artistiko eta kulturala.

e) Gazteentzako instalazio eta ekipamenduak, titulartasun publikokoak edo pribatukoak izan, gazteen zerbitzura daudenak zenbait motatako jarduerak egiteko: prestakuntzako jarduerak, jarduera sozial, kultural edo artistikoak edo aisiakoak.

f) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun egiazkoa, hura lortzeko behar diren neurriak ezarri.

II. KAPITULUA Zeharkako politikak

1. atala

Gazteriaren arloko oinarrizko politikak

15. artikulua. Gazteak eta osasuna.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ingurune eta bizitzeko ohitura osasuntsuak sustatuko ditu, prebentzio neurriak ezarri eta osasuna sustatzeko jarduketak eginez.

2. Arlo horietan eskudunak diren departamentuek, indarra duen araudiarekin bat:

a) Gazteentzako sentsibilizazio, prebentzio eta hezkuntzako berdintasuneko ekintzak bultzatuko

dituzte, arlo hauetan, besteak beste: elikadura eta ariketa fisiko osasuntsuak, loditasuna eta elikaduraren inguruko nahasteak prebenitzea; gazteen buru-nahasteak eta arazo psikologikoak prebenitzea; sexu hezkuntza; droga kontsumoa.

b) Gazteen osasunak izan ditzakeen arazoei buruzko ikerketaren, prestakuntzaren eta proposamenen gaineko ekintza orokorrak bultzatuko dituzte, familiekin, ikastetxeekin, gazteen erakundeekin, kirol erakundeekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean arituz.

16. artikulua. Gazteak eta kirola.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteen bizitza aktiboa eta kirol praktika faboratzeko ekintzak eginen ditu, beren garapen integralaren funtsezko zati gisa, horrela norbanakoaren bizi kalitatea eta ongizatea hobetzen laguntzeko.

2. Arlo horietan eskudunak diren departamentuek, indarra duen araudiarekin bat:

a) Gorputz hezkuntza eta kirol jarduera bultzatuko dituzte, baita gazteen bizimodu osasuntsua ere, loditasuna, lesioak, adikzioak eta substantzia kaltegarrien kontsumoa prebenitu eta horien ondoriozko tratamendua egiteko, eta, hala, adimen osasuna eta osasun fisikoa zaintzeko.

b) Kirol jarduera zuzena sustatuko dute, arreta berezia jarriz emakume gazteei, gazte etorkinei, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten gazteei eta kirolerako egoera ahulean dauden beste gazte batzuei zuzendutako jardueretan. Kontuan hartu behar da parte hartzeko, talde baten barnean sentitzeko eta harremanak izateko elementu garrantzitsua dela kirola.

c) Berariazko programak abian jartzearen bidez, aldiakako jarduera fisikoa goiz uzten duten gazteen artean lehiakortasunik gabeko jarduera fisikoa eta kirola bultzatuko dituzte.

d) Herri mailako eta autonomia erkidegoko kirol txapelketak eta lehiaketak bultzatuko dituzte gazteen artean.

e) Gazteek kirol erakundeetan parte hartzea bultzatuko dute.

f) Gazteak kirol instalazioetan sartzeko bidea faboratuko dute, prezioen politika egoki baten bitartez.

g) Kirol instalazioetako titular edo arduradunen eta gazte elkarten arteko lankidetzak sustatuko dute elkarte horiei instalazioetarako sarbidea errazteko, kirol jarduerak egin ditzaten.

h) Etengabeko prestakuntza bultzatuko dute eta gazteentzako kirolaren arduradunen gaikuntza

teknikoa sustatuko dute jarduketa esparru guztietan, desgaitasuna duten pertsonentzako kirolaren arloa barne.

i) Gazteriaren, kirolaren, osasunaren eta ikasketeen arloetako profesionalen arteko lankidetzaz sustatuko dute.

17. artikulua. Gazteak eta bide segurtasuna.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteak bide segurtasunaren inguruan prestatzeko jarduketak egiten ditu, arreta berezia jarriz gidatzean izaten diren arriskuzko jokaeren prebentzioan.

2. Arlo horietan eskudunak diren departamentuek, indarra duen araudiarekin bat:

a) Bide hezkuntza sustatuko dute, bai gazteriaren arloko profesionali bai gazteei berei zuzendutako sentsibilizazio kanpainen eta prestakuntza programen bitartez. Arreta jarriko da, bereziki, irisgarritasun arazoak dituztenengan.

b) Trafiko istripuak sorraraz ditzaketen arriskuzko jokaeren prebentziorako neurriak ezarriko dituzte.

c) Gazteen bide segurtasunari buruzko berriazko azterlanak egitea bultzatuko dute.

3. Nafarroako Gobernuak, departamentu eskudunen bidez, gazteek garraio publikoa erabiltzeko sustapen neurri bereziak bultzatuko ditu, segurtasunari begira eta arrisku egoerak saihesteko, batez ere hiriarteko eremuetan, horrela gazteen arteko lotura erraztu eta beren independentzia faboratzeko. Gidatze eraginkorra eta mugikortasun iraunkorra ere sustatuko dituzte.

18. artikulua. Gazteak eta pertsonen arteko harremanak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, departamentu eskudunen bidez, zenbait ekin-tza sustatuko ditu, gazteen harreman pertsonalak, familiarrak, harreman sozialak eta belaunaldien artekoak berdintasunean, errespetuan eta solidaritatean oinarritu daitezzen faboratzeko.

2. Afektuzko eta sexu harremanen arloan, sexu informazio eta hezkuntza emanen da, ondokoan bitartez:

a) Kanpainak, ikerketak eta berriazko programak bultzatzea.

b) Gazteei, familiei eta gazteriaren inguruko profesionali zuzendutako hezkuntza jardueren eskaintza.

c) Gazteen errealitatearen arabeko zerbitzuak eskainiko dira, arloko langile adituen eskutik,

gizon-emakume gazteentzako sexu-aholkularitza-koak. Gazteria, hezkuntza eta osasun arloetako departamentuek koordinatuko dituzte.

d) Genero indarkeriako, sexu jazarpeneko eta sexu-orientazioarengatiko nahiz -identitatearengatiko bazterketako egoeren prebentziorako eta arretarako programak bultzatuko dira.

2. atala

Aukerak sustatzeko politikak

19. artikulua. Gazteak eta hezkuntza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa hezkuntza sistemaren kalitateaz eta ekitateaz arduratuko da, eta gazte nafarren garapen pertsonal eta profesionala bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

2. Hezkuntza politikak arreta berezia jarriko du ondokoan:

a) Eskola ongizate eremu gisa eta izaeraren eta nortasunaren garapen harmonikoaren eremu gisa sustatzea.

b) Autonomia pertsonala garatzea eta egunero-ko bizitzako arazoak konpondu eta zailtasunak gainditzeko gaitasunen lorpena estimulatzea.

c) Helburu pertsonal, akademiko eta profesionalak lortzera bideratzea eta eskolako arrakasta bultzatzeko neurriak hartzea.

d) Ahultasun egoeran dauden gazte-taldeak eta gizartetik baztertuta gelditzeko arriskua dutenak hezkuntza sisteman txerta daitezzen faboratzea.

e) Genero estereotipoen aurka jokatzeko hezkuntza sistemetan.

f) Eskolako jazarpena eta hezkuntzaren esparruko bestelako indarkeria motak prebenitzea eta horien aurka jokatzeko, eta era berean jokatzeko sexua, arraza edo jatorri soziala dela-eta jokabide arrazista eta baztertzailak sortzen direnean.

g) Lanbide Heziketako eskaintzaren eta lanbide hastapeneko programen garapena eta dibertsifikazioa indartzea, eta goi mailako hezkuntzaren aldeko interesa sustatzea.

h) Bokazio artistikoak, zientifikoak, ekintzaileak eta abar bultzatzea.

i) Euskararen jakitea eta erabilera sustatzea.

3. Hezkuntzaren eta gazteriaren arloetako eskumenak dituzten departamentuek koordinazio eta lankidetzako bideak indartuko dituzte eta, taldearen aniztasuna kontuan izanik, neurri hauek hartuko:

a) Pertsonaren garapen integrala lortzen lagunduko duten ekintzak sustatzea, esparru hauetan: atzerriko hizkuntzak, sormena, kirola eta astialdian, ingurumenarekiko errespetuan eta boluntariotzan oinarritutako hezkuntza, besteak beste.

b) Eskolako porrota bizi duten gazteengan arreta berezia jartzea, baita eskola goiz uzten dutenengan ere.

c) Gazteei informazioaren eta komunikazioen teknologia berrietara iristen laguntzea, hezkuntzarako tresna diren aldetik, eta, bereziki, emakumezkoiei laguntzea.

d) Hezkuntzako hautua egiteko informazio eta orientazio zerbitzuak koordinatu eta sustatzea, eta hezkuntza mailen artean izaten diren aldaketa edo igarotze uneetan arreta jartzea bereziki.

20. artikulua. Gazteak eta enplegua.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteen enplegua lehentasunezkoztat joko du gazteriaren arloan, eta helburu orokor hauek lortzera bideratuko du bere jarduna:

a) Gazteen enplegua sortu eta mantentzea, eta enplegu horren kalitatea hobetzea; halaber, gazteek eraturako enpresen sorrera sustatzea.

b) Gazteen gaikuntza lan merkatuaren beharretara egokitzea eta prestakuntza bizi osoan izateak duen garrantziari buruz sentsibilizatzea.

c) Hezkuntza sistematik lan merkatura edo lan-gabeziatik lanera pasatzeko bidea erraztea.

2. Arlo horietan eskudunak diren departamentuek, indarra duen araudiarekin bat, ondokoetan jarriko dute arreta, bereziki:

a) Lan esperientziarik gabeko gazteek lehen enplegua lortzea, bereziki egoera zaurgarrienean daudenek, hala nola, emakumeek, desgaitasuna dutenek, etorkinek edo gizartean baztertuta dauden edo baztertuta gelditzeko arriskua dutenek.

b) Gazteei kontratu egonkorak egitea, gizonen eta emakumeen aukera berdintasuneko baldintzetan betiere.

c) Gazteen langabezia luzea.

d) Nazioarteko lanbide aukerak eta aukera okupazionalak sustatzea gazteentzat.

e) Lan munduan sexuagatik baztertzearen inguruko prebentzioa, hala lanpostua lortzerakoan, lanpostua mantentzerakoan eta lanbidean aurrera egiterakoan, nola ordainsarrietan eta lan baldintzetan.

f) Gazteen lan istripuak, laneko jazarpena eta lan munduan izan daitezkeen babesgabetasun eta zaurgarritasun egoerak prebenitzea.

3. Prestakuntzaren eta orientazioaren berariazko esparruan ondokoa egingen da:

a) Prestakuntza arautua utzi duten ikasleak lan merkatuan sartzera bideratutako programak abian jartzea, prestakuntzarako eta enplegurako programen bitartez.

b) Etengabeko prestakuntza, batez ere hizkuntzetan.

c) Gazteentzako beka programak zuzen gauzatzeko, prestakuntzarako duten helburua bermatuz eta iruzurraren kontra eginez. Halaber, kalitateko praktikaldiak sustatuko dira hezkuntza sistemen eta prestakuntzarako edo enplegurako programen barruan, gazteak lan munduarekin ohitu ahal izateko.

d) Langile gazteen lan eskubideei buruzko informazioa zabaltzea eragile ekonomiko eta sozialen bitartez, sindikatuen jardueraren garrantzia aipatuz bereziki.

e) Lanbideen inguruko orientazio, enplegarritasun eta aholkularitzako berariazko zerbitzuen ezagutza eta erabilera bultzatzea.

21. artikulua. Gazteak eta ekimena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak talentuaren, sormenerako gaitasunen eta ekimenerako pentsamoldearen garapena sustatuko ditu gazte nafarren artean, bai eta ikerketa, garapena eta berrikuntza ere.

2. Arlo horietan eskudunak diren departamentuek, indarra duen araudiarekin bat, jarduketa hauek egingen dituzte, besteak beste:

a) Enpresa gazteen sorrera bultzatzea, horretarako aholkularitza zerbitzuak indartzea eta horien onarpena sustatzea.

b) Sormenerako eta enpresa-senerako programak bultzatzea.

c) Gazteek unibertsitateen barruan eta kanpoan egiten duten ikerketa-lanari laguntza aktiboa ematea.

22. artikulua. Gazteak eta familia.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak familia gazteen –antolamendu juridikoaren arabera edozein dela ere haien eredu– aintzatespen, babes eta laguntzarako neurriak garatuko ditu gizartearen oinarritzako erakunde diren aldetik, eta familia-orientazio, -bitartekaritza eta -topagune zerbitzuak jarriko ditu haien eskura.

2. Familia gazteek emantzipazioaren lehenengo etapetan izaten dituzten zailtasunetan jarriko da arreta bereziki. Guraso bakarreko familia gazteak edo adineko pertsonak edo mendekotasuna duten pertsonak beren kargura dituztenak bereziki kontuan izanen dituzten neurriak hartuko dira.

3. Arlo bakoitzeko araudia kontuan hartuz, honako ekintza hauek gauzatzeko dira familia gazteei laguntzeko:

a) Familiak hezkuntzan eta sozializazioan betetzen dituen eginkizunen garrantzia sozialki aintzat hartzera bideratutako neurriak garatzea.

b) Familiarekin eta harreman familiarrekin lotuta dauden gaietan aholku ematea, eta familia gazteen familia-nukleoak finkatzeko eta hazteko beharrezkoak diren euskarriak ezartzea.

c) Emakume eta gizon gazteei laguntza ematea berdintasunean batera ditzaten familiako eta laneko bizitza, eta erantzunkidetasuna sustatzea bikote gazteetako kideen artean.

d) Guraso gazteei laguntza eta sostengua emateko programak sortzea.

e) Elkarrekin eta erakundeekin lankidetzatza arlo horretan.

23. artikulua. Gazteak eta etxebizitza.

1. Nafarroako administrazio publikoek gazteek etxebizitza (edozein modalitatetan) lortzera bideratutako ekintzak bultzatzeko dituzte, haien beharrak eta ahalmen ekonomikoak kontuan hartuta.

2. Etxebizitza politikaren helburua da, gazteei dagokienez, bizitokia izateko duten beharra betetzea, halako eran non izan dezaten etxebizitza bat eskuratzeko modua, ahal izanez gero alokairuan.

3. Aipatu helburua lortzeko, arlo horretan indarra duen araudiarekin bat, neurri hauek hartuko dira, besteak beste:

a) Gazteei alokairuko etxebizitza babestua lortzeko erraztasunak ematea, halako etxebizitzak lortzeko baremo bakarraren barnean adina berriaz baloratuz.

b) Jabegoko etxebizitza babestua lortzeko baremo bakarrean lehentasuna ematea alokairuko sistema publikoan sartuta dauden eskatzaileei.

c) Gazteentzako berariazko programen esparruan etxebizitza babestuak sustatzea; hain zuzen ere, hasiera batean etxebizitza alokatua lortzera bideratutako programak.

4. Halaber, etxebizitza arloan dauden informazio zerbitzuak sustatzeko dira, gazteen eskariei

egokiturik, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlanean.

24. artikulua. Gazteak, mugikortasuna eta nazioartekotzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteak prestatu eta sentsibilizatuko ditu, ingurune orokor batean garapen pertsonal eta profesionaleko aukerak aprobetxatzeko gai izan daitezten.

2. Helburu hori lortzeko, arlo horietan eskudunak diren departamentuek, indarra duen araudiarekin bat, neurri hauek hartuko dituzte, besteak beste:

a) Nazioarteko kultura sustatzea gazteen artean.

b) Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza sustatzea, batez ere ingelesarena.

c) Nazioarteko dimentsioa txertatzea hezkuntza sisteman.

d) Gazteen mugikortasun geografikoa errazteko bideak sustatu eta gauzatzeko, horrela beren prestakuntza, enplegarritasuna, lanbide kualifikazioa, kultura arteko ikuspegia eta ikerketarako nahia hobetzeko.

e) Gazteak eta gazteriaren arloko profesionalak prestatzea Nafarroako enpresek kanporantz irekitzeko abian jarri duten ekimenari jarraitzeko gai izan daitezten.

f) Nafarroako gazteei Europako eta nazioarteko erakunde garrantzitsuenetako postu estrategikoak lortzen laguntzeko programak bultzatzea.

g) Gazteen nazioarteko parte-hartze soziala eta elkarrekin sortzeko joera sustatzea, emakumeengan arreta berezia jarrita.

25. artikulua. Gazteak eta gizarte zerbitzuak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, arlo horretan indarra duen araudiarekin bat eta toki entitate eskudunen laguntzarekin eta entitate sozialekin, lan egingen du gazteen ahultasun eta zaugarritasun egoerak saihesteko, honako kasu hauetan: ezgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten gazteak, gizarte bazterketa, genero indarkeria eta, adingabeen kasuan, babesgabetasuna edo gizarte gatazkako egoerak dituztenak.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, arlo horretan eskudunak diren departamentuen bitartez eta indarra duen araudiarekin bat, jarduketara hauek egingen ditu:

a) Adin nagusitasunera iritsi ez diren eta arrisku edo babesgabetasun egoeran dauden gazteak babestu, Haurrentzako eta Nerabeentzako Susta-

penari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legean ageri diren jarduketekin bat.

b) Gazteei laguntza emateko kontzientzia eta lankidetzaren soziala sustatu, batez ere adingabeak direnean, eta, horretarako, gazteak babesteko berriazko programen berri ematea, babesik gabe dauden adingabeak familietan hartzeko programen berri bereziki.

c) Adin nagusitasunera iritsi eta babes edo erreforma sistematik heldu diren gazteei autonomia lortzen eta helduen bizitzan erabat integratzen lagundu, haurrak eta nerabeak babesteko prozesua osatzen duten gizarteratze eta lan integratzioko programen bitartez.

d) Sentsibilizazio, prestakuntza eta hezkuntza arloko ekintzak sustatu familiaren ingurunean eta gazteentzat beraiantzat, gatazken prebentziorako balioak barneratu ahal izateko.

e) Desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten gazteen gizarteratzea bultzatu bereziki, beren autonomia pertsonala eta gizaratean eskubide osoko kidegintzat hartzea bultzatzeko.

f) Gazteengan eragina duten pobrezia eta gizarte bazterketako arriskuen eta egoeren gaiari heldu, gizarte babeserako sistema eta politika guztiek batera esku hartuta.

g) Genero indarkeriaren aurrean gazteek duten arriskuaren eta behar duten babesaren gaiari heldu, eta horretarako prebentzioa egitea neska-mutilei zuzendutako sentsibilizazio neurrien bidez.

26. artikulua. Gazteak eta landa ingurunea.

1. Nafarroako lurralde aniztasuna kontuan harturik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erraztu egingen du gazteek gazteriaren arloko baliabide eta zerbitzuetara baldintza berdinetan iritsi ahal izatea, gazteek izan dezaten, nahi izanez gero, landa ingurunean gelditzeko modua.

2. Helburu hori lortzeko, neurri hauek hartuko dira, besteak beste:

a) Teknologia berriak –banda zabalarenak eta eremu publikoetan hari gabeko sistemak bitartez Internetera sartzekoak– bultzatuko dira, eta horiek landa ingurunean ezartzea eta erabiltzea faboratuko da, bai eta horien bitartez bidera daitezen ere gazteen eta administrazio publikoen arteko harremanak.

b) Gazteen mugikortasuna erraztuko da landa ingurunean.

c) Gazteentzako jarduerak ibiltariak egingen dira, bai eta landa inguruneen garapenerako lagungarri

izan diren gazte arloko esperientziak trukatu ere.

d) Hezkuntza ez-formala eta hezkuntzen ikasketak sustatuko dira.

e) Asoziazionismoa eta gazteen parte-hartzea sustatuko da landa ingurunearen garapen sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalen.

f) Landa ingurunean gazteentzako etxebizitzak sortu eta zaharberritzeko sustapen lana egingen da, toki entitateekin elkarlanean.

3. Berriaz, landa ingurunean enplegua sortzeko neurriak hartuko dira, eta, horretarako, autoenplegurako ekimenak garatuko dira, gazteak sektoreko jarduerekin lotutako kooperatibetan edo elkarteetan sartuko dira eta enpresa-ekimena bultzatuko da landa ingurunean.

3. atala

Gazteen irispidean jarri beharrekoen gaineko politikak

27. artikulua. Gazteak eta kultura.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, arlo horietan eskudunak diren departamentuen bitartez eta indarra duen araudiarekin bat, gazteen kultura eta sormena sustatzeko politikak gauzatuko ditu.

2. Gazteei zuzendutako kultur politiken helburua izanen da beren garapen kultural eta pertsonal osoa lortzea, printzipio demokratikoen eta funtsezko askatasunen errespetatua oinarri hartuta; horretarako, gazteak kultur agerpenetara iritsi daitezuten erraztuko da, bai eta sorkuntza artistikoa sustatuko ere. Kultur politika horiek xede hauek lortzera bideratuta egingen dira:

a) Gazteak kulturara iristeko bidea sustatzea, entitate publiko edo pribatuekin hitzarmenak eginenez, gazte txartelen esparruan.

b) Ondasun historiko, artistiko eta kulturalen ezagutza sustatzea oro har, eta arreta Nafarroako Foru Komunitatekoetan jartzea bereziki.

c) Literatur sorkuntzaren irakurzaletasuna bultzatzeko, ezagutzara eta zientziara hurbiltzeko eta museo, antzoki, erakusketa, zinema eta kontzertuetan sartzen laguntzeko kanpaina instituzionalak sustatzea.

d) Gazteen kultur elkarteak sustatzea.

e) Arte eta kultura garaikideak zabaltzea gazteen artean.

f) Artista gazteei laguntza ematea berariazko programen bidez eta Nafarroako Foru Komunitateko kultur eskaintza orokorrean sartuz.

28. artikulua. Gazteak eta ingurumena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteen ingurumen hezkuntzara bideratutako politikak eta jarduketak garatuko ditu, ingurumena zaintzeko konpromiso handiagoa izan dezaten laboratzeko.

2. Ingurumenaren arloan gazteei zuzendutako jarduketek xede hauek izanen dituzte:

a) Natura ezagutzeko eta natur ondarea baloratzeko berariazko jarduketak garatzea.

b) Gazteentzako instalazioetan energia efizientziarako neurriak sustatzea eta ingurumen arloko boluntariotzarako gazte elkarteak sortzen laguntzea.

c) Natura zaintzeko eta natur baliabideak zentuz erabiltzeko ohiturak zabaltzea gazteen artean, bai eta ingurumena eta oinatz ekologikoa errespetatzeko jarrerak ere.

d) Gazteen artean kontsumo arduratsua, bererabilera eta birziklapena bultzatzea, bai eta energia berriztagarrien erabilera ere.

29. artikulua. Gazteak eta teknologia berriak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berariazko politikak eta ekintzak gauzatuko ditu gazteak informazioaren eta komunikazioaren teknologietara irits daitezen laboratzeko, unibertsaltasunaren printzipioa eta aukera berdintasuna bermaturik betiere.

2. Arlo horretako gazte politikek xede hauek izanen dituzte:

a) Gazteak informazioaren gizartera hurbiltzeko prestakuntza eta informazio ekintzak garatzea.

b) Teknologia berriak elkarrean esparruan eta gazteen talde behartsuenetan ezagutu eta erabiltzeko sustapen lana egitea.

c) Teknologia berrien erabilera zentuzko eta arduratsua sustatzea, eta gazteek Interneten izan beharreko segurtasun eta babesean arreta jartzea bereziki.

d) Teknologia berrietako prestakuntza planak garatzea gazteriaren arloko profesionalentzat.

30. artikulua. Gazteak eta kontsumoa.

Nafarroako gazteei zuzendutako kontsumo arloko politiken xedea izanen da informazioa eta prestakuntza ematea eta beren eskubideak babestea, indarra duen araudian xedatutakoarekin bat.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, esparru horretan lan egiten duten entitateen laguntzarekin, gazteen artean kontsumo arduratsuen aldeko kanpainak abiaraziko ditu, eta arreta berezia eskainiko dio ekonomia solidarioari.

4. atala

Gazteek parte hartzeko politikak

31. artikulua. Gazteak eta herritarren parte-hartzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lan egiten du gazteek gizartean erabat eta berdintasunean parte har dezaten bermatzeko.

2. Arlo horietan eskudunak diren departamentuek, indarra duen araudiarekin bat, gazteek gizartean parte hartzeko neurri hauek hartuko dituzte:

a) Ingurune egokia sortzea gazteei herritarren parte-hartzearen kulturaren parte hartzen erakusteko modu berriak ezartzeko.

b) Gazteei zuzendutako kanpainak eta ekintzak sustatzea, arreta handiagoa jarriz agerpen eta ordezkari gutxiago duten taldeetan, batez ere emakume gazteen taldean.

c) Gazteak hezkuntzaren esparrutik bideratzea pertsona eta iritzi guztiekiko errespetuarekiko konpromisoan eta belaunaldien eta kulturen arteko bizikidetzan parte hartzera.

d) Gazteak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa elkarrengana gehiago hurbiltzera eta horien arteko elkarriketa sustatzera bideratutako beste ekintza batzuk.

32. artikulua. Gazteak eta boluntariotza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du Nafarroako gazteek boluntariotza jardueretan parte hartzea, arlo horretako araudian ezarritakoarekin bat.

2. Helburu hori lortzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, arlo horietan eskudunak diren departamentuen bitartez eta indarra duen araudiarekin bat:

a) Gazteen boluntariotza lagundu eta sustatuko du, gizarte egoera ahul hurbilenetan batez ere, horrek balio sozial handia duen aldetik eta gazte erakundeen eta gazteriaren beraren ekarpena aintzat harturik.

b) Boluntariotzaren kalitatea bermatzeko formulak aztertu eta ezarriko ditu, eskubideei, onurei eta abantailei, prestakuntzari eta mugikortasunari dagokienez.

c) Kontzientziatzeko eta boluntarioak erakartzeko kanpainak eginen ditu eta eskaintza eta eskari poltsak sortuko ditu Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin egiten duen kudeaketa hobetzeko, eta hurbilen dauden eta premia dagoen gizarte-errealitateetan boluntariora sustatuko du.

d) Babes zibileko boluntariora eta suhiltzaileen sustatuko ditu gazteen artean, garapen pertsonalerako eta gizartearekin jarrera solidario eta altruista erakusteko aukerak diren aldetik.

33. artikulua. Gazteak eta nazioarteko parte-hartzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, garapenerako nazioarteko lankidetzaz ezartze-ko duen politikaren esparruan, gazteen parte-hartzea sustatuko du.

2. Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuak, Europar Batasunaren jarraibideen esparruan eta horretarako diseinatzeko diren programen bitartez, parte-hartzea, solidaritatea, mugikortasuna eta kontzientzia europarra sustatuko ditu Nafarroako gazteen artean.

34. artikulua. Gazte elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk.

1. Gazteek gizartearen parte-hartzea erraztearen eta erantzukizun sozialeko kontzientzia sustatzearren, gazte elkarte berriak sortzen lagunduko duten mekanismoak ezarriko dira eta gaur egungo elkarte sarea indartuko da. Bereziki sustatuko da gazte-gaztetandik eta hezkuntzaren esparruan parte hartzea.

2. Gazteei zerbitzuak ematen dizkieten beste entitate batzuk sortzea sustatuko da, baita sor daitekeen beste edozein entitate ere, gazteek gazteriaren arloko politiketan parte hartzeko benetako bideak diren aldetik.

Horri begira, gazte entitatetzat jotzen dira 14 urtetik 30 urtera bitarteko kideak izan eta Nafarroako Foru Komunitatearen barnean aritzen direnak.

3. Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuak beharrezkoak diren zerbitzuak eta laguntza emanen dizkie gazte entitateei, era daitezen, eta administrazio tramiteak erraztu eginen dizkie administrazio elektronikoen bitartez.

4. Gazte elkarte eta entitateek beren xede eta jardueretarako behar dituzten instalazioak eta ekipamenduak erabil ditzaten faboratuko da.

35. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua.

1. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua zuzenbide publikoko entitate bat da, nortasun juridiko pro-

pia duena eta bere xedeak betetzeko gaitasun osoa duena. Jokatuko du foru lege honetan, bera sortzeko foru dekretuan eta bera garatzeko gainerako arauetan ezarritakoaren arabera.

2. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren funtsezko xedea da gazteen parte-hartzea sustatzea Nafarroako Foru Komunitateko garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean, bai eta gazteen eskubideak zaintzea ere, bereizkeriarik eta bazterketarik izan ez dezaten eta erabat gara daitezen.

3. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua izanen da Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde esparruko gazteen entitateen eta gazteriaren ordezkari organo gorena, bai eta kasuan kasuko administrazioaren solaskide nagusia ere.

4. Hauek dira Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren eginkizunak:

a) Gazteen asoziazionismoa sustatzea, auke-
ren berdintasunean, haren garapena sustatuz eta beharrezkotzat jotzen duen edo eskatzen zaion babesa, laguntza eta aholkularitza emanez.

b) Nafarroako Foru Komunitatean gazteriaren tokiko nahiz eskualdeko kontseiluak sor daitezen bultzatu eta sustatzea.

c) Jarduerak sustatzea ziurtatze aldera gazteek berdintasunez parte hartzen dutela haiengan eragina duten erabaki eta neurrietan.

d) Administrazioak gazteriarekin zerikusia duten gaiak aztertze-ko ezartzen dituen kontsulta-
organoetan parte hartzea, eta interesgarritzat jotzen dituen gainerakoak proposatzea.

e) Administrazioaren eta gazteen arteko solaskidea izatea.

f) Nafarroako Gobernuarekin lan egitea gazte-entzako politika bat prestatzen, populazio gaztearen arazoekin lotutako kanpainak eta jarduerak sustatuz.

g) Gazteengan eragin eskusiboa duten foru legeen aurreproiektuei buruz eta foru dekretuen proiektuei buruz informatzea.

h) Gazteriarekin zerikusia duten gaiei buruzko txosten edo azterlanak egitea, beren kasa nahiz Administrazioak eskatuta. Horretarako, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak Administrazioari beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskatu ahalko dio.

i) Eskualdeko, nazio-ko eta nazioarteko lankidetzaz sustatzea, gazteriarekin zerikusia duten arloetan.

j) Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko kideak ordezkatzeko gobernuetako nahiz gobernuz kanpoko erakunde eta foroetan, berariaz gazteriari buruzkoak diren enetan zein bestelakoetan.

k) Gazteen bizi kalitatea hobetzen eta aisia modu osasuntsuan garatzen laguntzea, jarduera kulturalak, informatiboak, prestakuntzakoak eta parte-hartzaileak antolatuz eta haiek gazteen populazio osoaren ezaugarrien arabera planifikatuz.

l) Gazteen zerbitzuan Nafarroako Foru Komunitatean dauden baliabideak eta ondarea eraginkortasunez kudeatzeko neurriak proposatzea eta neurri horiek hartzen laguntzea; halaber, aipatutako baliabideak eta ondarea erabiltzeko irizpideak ezartzea.

m) Gazteriaren arloan eskuduna den Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuak esleitutako edo delegatutako beste edozein eginkizun.

5. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren osaketa, antolamendua eta funtzionamendua erregulamendu bidez ezarriko dira.

36. artikulua. Gazteriaren eskualdeko eta tokiko kontseiluak.

1. Gazteriaren eskualdeko eta tokiko kontseiluak, beren lurralde-esparruan, gazteen entitateen eta gazteriaren ordezkari organo gorenak dira, bai eta kasuko administrazioekiko solaskide nagusiak ere.

2. Eskualdeko kontseiluen eraketa, helburuak, osaketa, eginkizunak eta aitorpena erregulamendu bidez arautuko dira.

III. TITULUA

Baliabideak eta finantziazioa

37. artikulua. Finantziazio iturriak eta printzipioak gazteriaren arloan.

1. Gazteriaren arloko jarduera, zerbitzu eta instalazioek sortzen dituzten gastuen finantzabideak honako hauek izanen dira:

a) Nafarroako aurrekontu orokorretako eta Nafarroako toki entitateen aurrekontuetako ekarpenak.

b) Beste administrazio publiko batzuek egiten dituzten ekarpenak, hala gertatzen denean.

c) Entitate pribatuek xede horretarako egiten dituzten ekarpenak.

d) Gazteriaren arloko zerbitzu eta instalazioen erabiltzaileen diru ekarpenak.

e) Xede horretarako ezarritako jaraunspenak, dohaintzak edo legatuak.

f) Xede horretarako ezarritako zuzenbide publiko edo pribatuko beste edozein diru-sarrera.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, gazteriaren arloan eskuduna den departamentuaren bitartez, laguntza emanen die Nafarroako toki entitateei gazteriaren arloko jarduera, zerbitzu eta instalazioak gara ditzaten. Halaber, laguntza emanen du Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren ohiko funtzionamendurako, bai eta gazte elkarte eta entitateei eta gazteekin lan egiten duten eragile sozialei eta entitate publiko eta pribatuei ere.

3. Foru lege honetan araututako gaien aplikazioari eta garapenari dagozkien kontusailen urteko aurrekontu-zenbatekoaren aldaketak, ekitaldiz ekitaldi, Nafarroako aurrekontu orokorretan kasuko ekitaldian gertatzen den batez besteko aldaketaren antzekoa izatera joko du.

38. artikulua. Erabiltzaileek finantziazioan parte hartzea.

1. Gazteriaren inguruko jarduera edo zerbitzuetan parte hartzeko edo instalazioak erabiltzeko tarifen araubidea gazteen berariazko ezaugarriak kontuan hartuz ezarriko da.

2. Erabiltzaileek jardueretan parte hartzeagatik, zerbitzuak jasotzeagatik edo instalazio publikoak erabiltzeagatik ordaindu beharrekoa ez da inolaz ere horien kostutik gorakoa izanen.

3. Nafarroako administrazio publikoek diru-laguntzak emanen dizkiete gazteei, zuzenean edo gazteak bildu eta ordezkatzeko dituzten erakunde bidez, errazagoa izan dezaten jarduera eta zerbitzuetan parte hartzea eta gazteentzako instalazioak erabiltzea.

IV. TITULUA

Ikuskapena eta zehapen araubidea

I. KAPITULUA

Gazteriaren arloko ikuskapena

39. artikulua. Ikuskapenerako eskumenak eta eginkizunak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek, beren eskumenen esparruan, koordinatuki beteko dute gazteriaren arloko ikuskapen eginkizuna, eta beharrezkoak diren baliabideak eta langileak jarriko dituzte horretarako.

2. Ikuskapen lana zerbitzu eta jarduera ikuskatuekiko loturarik gabe eta autonomiaz egiten da,

eta foru lege honetan eta hori garatzen duten erregelamendu-arauetan xedatutakoari hertsiki jarraituz.

3. Gazteriaren arloko ikuskapenak, beste lege batzuetan araututako ikuskapen jarduerak galarazi gabe, eginkizun hauek izanen ditu:

a) Foru lege honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako betebeharrak betetzen diren begiratu eta egiaztatzea, horiek ez betetzeak arau-hauste administratiboa ekar dezakeen.

b) Foru lege honetan eta hori garatzeko erregelamenduan xedatutakoari buruzko txostenak egin eta aholkuak ematea.

c) Partikularren erreklamazio edo salaketen xede diren eta arau-haustea izan daitezkeen gertaerak egiaztatzea.

d) Laguntza publikoren bat jaso duten gazte jardueren garapena kontrolatzea.

e) Erregelamendu bidez esleitzen zaizkion gainerakoak.

40. artikulua. Ikuskatzaileak.

1. Gazteriaren arloko ikuskatzaileek agintea izanen dute ondorio guztietarako, beren lanean ikusten dituzten egitateen eta jasotzen duten informazioaren gaineko isiltasun profesional zorrotza eskatuko zaie eta, beren lana egiteko, beharrezkoa duten laguntza eta babesa eska diezaiekete beste agintari batzuei, eta horiek ematera behartuta egonen dira.

2. Eginkizunak betetzean, gazteriaren arloko ikuskatzaileek zilegi izanen dute, indarra duen legediarekin bat, foru lege honek ezarritako araubidearen mende dauden lokal, instalazio, jarduera eta zerbitzuetan aldeztu aurretik abisatu gabe eta nahi dutenean sartzea, egoitzaren bortxaezintasuna errespetatuz betiere, eta beharrezkotzat jotzen duten informazio eta dokumentazioa eskatzea.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aldi baterako gaitu ditzake gazteriaren arloko ikuskatzaileak, bertako langileen artetik hautatuta.

II. KAPITULUA

Zehapen araubidea

41. artikulua. Gazteriaren arloko arau-haustekak.

1. Foru lege honetan ageri diren arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

2. Honako hauek dira arau-hauste arinak:

a) Foru lege honetan ezartzen diren betebeharrak edo erregelamenduz ezar daitezkeen atzerapen soil bat dakarten jarduketak edo ez-egiteak.

b) Prestakuntza lanetan aritzea horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

c) Gazteentzako informazio zerbitzuak eman edo ezartzea horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

d) Entitate publiko edo pribatuek gazte txartela-inguruan lortutako konpromisoak ez betetzea, kalifikazio larriagorik ez dagoenean.

e) Gazteentzako instalazioen funtzionamendu, mantentze eta kokapenerako baldintzak ez betetzea.

f) Beste kalifikazio larriagorik ez duten baldintzak ez betetzea.

3. Honako hauek dira arau-hauste larriak:

a) Ikuskapen lana oztopatzea baina eragotzi gabe.

b) Zerbitzu eta instalazioetan funtsezko aldaketak egitea beharrezkoak diren arauko formalitateak bete gabe.

c) Arau-hauste arintzat jotzen direnak, zaborke-ria larririk edo araua hausteko asmorik agertu ez arren inguruabar hauetakoren bat izaten denean: gazteentzako jarduera, zerbitzu edo instalazioen erabiltzaileen osasun edo segurtasunerako arrisku larria sortu bada, edo kalte fisiko edo psikiko larria, edo larritzat jotzerik ez izan arren erabiltzaile askorengan baldin badu eragina.

d) Nafarroako Gobernuak sustatzen dituen gazte txartelak ematea Gobernuaren beraren baimenik edo horretarako gaitzen duen titulurik izan gabe.

e) Gazteentzako instalazioei dagokienez, langileek eskatzen diren tituluak ez izatea, erantzukizun zibileko aseguru polizarik ez edukitzea, larrialdi planik ez izatea eta baimendutako jende kopurua gainditzea.

f) Aisiako eta astialdiko jarduerak egitea horretarako langile tituludunik izan gabe eta material egokia eduki gabe, eta baimenen eta segurtasunaren arloan ezarritako arauak bete gabe.

4. Honako hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Ikuskapenari ezetza eman edo oztopatzea eta, horren ondorioz, eragozteak.

b) Arau-hauste larritzat jotzen direnak, gazteentzako jardueren, zerbitzuen edo instalazioen

erabiltzaileen osasun edo segurtasunerako arrisku larria dagoenean, edo kalte fisiko edo psikiko larria egiten denean, zabarkeria larria edo araua hauste-ko asmoa atzematen denean bi kasuetan.

c) Gazteentzako instalazio transferituak edo kudeaketa eskuordetua dutenak instalazioen gaineko hitzarmenean edo egintzan ageri den xederako ez erabiltzea, baizik eta beste baterako, eta, edozein modutan ere, gazteentzat soilik diren jarduera edo zerbitzuetarako ez erabiltzea.

d) Gazteentzako instalazioetan edo jardueretan arrazakeria, xenofobia, indarkeria edo balio demokratikoen kontrako beste jokabide batzuk izatea edo baimentzea.

42. artikulua. Zehapenak.

1. Foru lege honetan sailkatutako arau-haustek zehapen hauek izanen dituzte:

a) Arau-hauste arinak ohartarazpen idatziarekin edo 300 eurotik 3.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira.

b) Arau-hauste larriak 3.000,01 eurotik 30.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira eta, gainera, gazteriaren arloko jarduerak egiteko administrazio baimena lortzeko debekua jarriko da edo baimena kenduko da, sei hilabeterako, gehienez ere.

Horretaz gainera, zilegi izanen da zehapen hauetakoren bat edo batzuk jartzea, bidezkoa dena kontuan harturik, arau-haustearen eta erantzulearen izaeraren arabera:

b.1) Instalazioa, astialdiko eskola edo informazio zerbitzua gehienez ere lau urterako ixtea.

b.2) Gazteriaren arloko profesionala gehienez ere lau urterako desgaitzea.

b.3) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren dirulaguntzak jasotzeko urte batetik bost urtera bitarte desgaitzea.

c) Arau-hauste oso larriak 30.000,01 eurotik 100.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira eta, gainera, gazteriaren arloko jarduerak egiteko administrazio baimena lortzeko debekua jarriko da edo baimena kenduko da, hamabi hilabeterako, gehienez ere.

Horretaz gainera, zilegi izanen da zehapen hauetakoren bat edo batzuk jartzea, bidezkoa dena kontuan harturik, arau-haustearen eta erantzulearen izaeraren arabera:

c.1) Instalazioa, astialdiko eskola edo informazio zerbitzua lau urtetik gorako aldirako edo betiko ixtea.

c.2) Gazteriaren arloko profesionala lau urtetik gorako aldirako edo betiko desgaitzea.

c.3) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren diru-laguntzak jasotzeko bost urtetik hamar urtera bitarte desgaitzea.

2. Zehapenen maila ezartzeko honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Kaltea jasan duten pertsonen kopurua.

b) Egindako kalteen izaera.

c) Lortutako lege kontrako onura.

d) Araua hausteko asmoa izatea.

e) Arauak behin eta berriz haustea, urtebeteko epean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin izanagatik, ebazpen irmo baten bidez hala dela deklaratu denean.

3. Zehapena ezartzeak ez du baztertzen kalte eta galeren ondoriozko ordaina ezarri ahal izatea arau-hausleari.

Lehen xedapen gehigarria. Gazteriaren Plan Integrala.

Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta bi urteko epean, autonomia erkidegoari dagokion Gazteriaren Plan Integrala prestatu eta abian jarriko du.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren finantziazioa.

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren finantziazioa gaurkotu egingen da eta, kasua bada, handitu, foru lege honetan esleitzen zaizkion eginkizun berriak garatu ahal ditzan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Kantsultako eta elkarrizketa egituratuko prozesuak.

Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, gazteekin eta gazteen erakundeekin kantsultako eta elkarrizketa egituratuko prozesuak aurrera eramateko metodologia eta baldintzak ezarriko ditu erregelamendu-garapen baten bitartez, eta horretarako Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren parte-hartzeaz baliatuko da.

Xedapen iragankor bakarra. Aplikatu beharreko erregelamendu-araudia.

Foru lege hau garatzeko erregelamendua onetsi bitartean, gazteriaren arloan indarra duten xedapen orokorrak aplikatuko dira, haren kontrakoak ez badira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indarrrik gabe uzten diren xedapenak.

Indarrrik gabe uzten dira Nafarroako Gazteriarren Kontseilua sortzen duen apirilaren 18ko 110/1986 Foru Dekretuko 1., 2., 3. eta 4. artikulak.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamendu-garapena.

Ahalmena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta gazteriaren arloan eskuduna den departamen-

tuko titularrari, foru lege hau aplikatu eta garatzeko eska daitezkeen erregelamendu-xedapenak eman ditzaten.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeit hamar egunen buruan hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legean erantzukizun sistema desberdina ezartzen da zirkulazio istripuen kasuetarako eta gainerako gorabeheretarako. Azken urteotan, areagotu egin dira Nafarroako zenbait eskualdetan ehiza-espezieek laboreetan eragindako kalteak, eta bereziki azpiegiturekin lotutakoak eta zenbait espezierentzat babesleku direnekin lotutakoak.

Halatan, aldaketa zor zaio egungo erantzukizun-sistema egokitze aldera legegileak erakutsitako interesari, bideen, ubideen edota antzeko azpiegituretan mantentze-, zaintza- eta prebentzio-lanak egiteko konpromisoa eta erantzukizuna ezar daitezen, halako moduz non erantzukizunen banaketa hutsaren gaineratik, garrantzi berezia emanen zaion prebentzioari eta kalteak minimizatzeari.

Artikulu bakarra. Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea honela aldatuko da:

Bat. 20.2.i) artikulua.

“i) Kalteak ekiditeko behar diren neurriak hartzea. Hala eta guztiz ere, ehiza-barrutietan horiek zeharkatzen dituzten bide publikoak, ubideak edo antzeko azpiegiturak badaude, beren luzera osoan hesituta daudenak, edota halakoekin muga egiten badute, bide, ubide edo azpiegitura horien titularrei dagokie beharrezkoak diren zaintza- eta prebentzio-lanak egitea, bertan bizi diren animaliek besteren ondasunetan kalteak eragin ditzaten saiheste aldera.”

Bj. 45.1 eta 2 artikulua.

“1. Monteria esaten zaion ehiza larriko modalitatean ehiztariak zakurren laguntzaz aritzen dira. Postuetan paratutako ehiztariak alde aurretik inguratu duten mendi eremua arakatu egiten da. Betiere postuetan ezarritako ehiztariak 40 baino gehiago dira eta zakurrak 30 baino gehiago. Monteriak egitea kasuan kasuko ehiza antolatzekeo planean aurreikusita eduki behar da. Planean zehaztuko dira monteria bakoitzerako ehiza eremuen mugak eta ehiza kanpaina osoan egingen diren monterien kopurua. Halako ehiza saioak egin baino 15 egun lehenago, gutxienez, jakitun jarri behar da eskuduna den Departamentua.

2. Ehizaldiak egitea, monteriatik antzekoa den ehiza larriko modalitate gisa, kasuan kasuko ehiza antolatzekeo planean aurreikusi behar da, baldin eta postuetan jarrita parte hartzen duten ehiztari kopurua 4 eta 40 bitartekoa bada, ehiztariak guztira 50 baino gehiago ez direla, eta gehienez ere 30 zakurrek parte hartzen badute.”

Hiru. 86.2 artikulua.

“2. Ehizarako edo arrantzarako basa animaliek eragindako gainerako kalteengatik ordaina legedi zibilaren arabera erantzukizuna dutenek ordaindu beharko dute, salbu eta segurtasun arazoengatik ehizarako debekatuak diren ere-

muen barrualdean -esate baterako, autobideak, autobiak edo bestelako bide- nahiz ureztatze-azpiegiturak, eguzki-baratzeak, eta abar- bizi diren ehizarako basa animaliek sortutako kalteen kasuan, baldin eta haietan bere luzera osoan hesitutako eremu mugakideak badituzte; haietan, izan ere, haien jabea, titularra edo lagapen-har-tzailea joko da erantzulezat.”

Lau. Xedapen gehigarri berri bat eransten zaio, honako testuarekin.

“Zazpigarren xedapen gehigarria. Kalteen prebentziorako planak.

Nafarroako Gobernuak, gaian zerikusia dutenen lankidetzeta eta partaidetzarekin, prebentzio planak prestatu eta aplikatuko ditu, ehizarako animaliek sor ditzaketan kalteak ekiditeko edo gutxitzeko.”

Azken xedapena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Legea, aldatzen duena Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 24an egindako Osoko Bilkuran, ondoko foru legea onetsi zuen: “Foru Legea, aldatzen duena Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, aldatzen duena Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeak egoera anomalo bat zuzendu zuen. 1987tik aitzina, Nafarroan errenta aitortpena egiteko eredu guztietan ageri da aipatu kuota hori Elizari edo gizarte-intereseko beste xede batzuetara bideratzeko aukera, baina bigarrenaren aldeko hautua egiteak ez zeukan aplikazio zehatzik aurrekontuetan.

Foru lege hori onetsi zenez geroztik, legearen aplikazioan zenbait arazo gertatu direla detektatu da, eta garrantzitsua da horiek zuzentzea. Zehazki, nahitaezkoa da behar adina deialdi egitea, kasuan kasuko aurrekontu-ekitaldian PFEZaren 100eko 0,7ko funtsean ezarritako diru guztia agortzeko. Era berean, argi ezarri beharra dago zer epetan eta zer modutan egin behar diren kasuan kasuko deialdiak.

Artikulu bakarra. Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzea.

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeak aldaketa hauek izanen ditu:

Bat. 7. artikulua.

“Nafarroako Gobernuak jarduera-multzo bakoitzari buruzko deialdia argitaratuko du, urte bakoitzeko aurrekontuen legeak indarra hartu ondoko hogeita hamar eguneko epean gehienez ere, edo aurreko aurrekontuak luzatutzat ematen diren egunetik, kasua bada, Gizarte Ongizateko, Garapenerako Lankidetzako eta Ingurumeneko Nafarroako kontseiluek irizpena eman ondoren; irizpen horretan, Nafarroako Gobernuak ahal den adostasun handiena lortzea bilatuko du. Halaber, PFEZaren kanpainetan zehar, zergadunentzako behar adina

informazio emanen da laukitxoak markatzeko dauden aukerei buruz, bai eta foru lege horren bidez finantzatzen diren programei buruz ere.

Foru lege honetako 3. artikuluan zehaztutako multzo bakoitzeko behar adina deialdi eginen dira, harik eta unean uneko ekitaldian egokitzen den PFEZaren 100eko 0,7ko funts guztia agortu arte”

Bi. Xedapen gehigarri berri bat eransten zaio, honako testuarekin:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Foru lege honetako 7. artikuluan aipatutako informazioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak, PFEZaren kanpaina hasi baino astebete lehenago, informazioa emanen du marka daitekeen laukitxoetako bakoitzaren gainean, eta gauza bera eginen du,

kanpaina hori amaitzean, foru lege honetan araututakoarekin finantzatzen diren programen gainean ere.”

Azken xedapenetako lehena. Foru lege honek indarra hartu eta zazpi hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko dio Parlamentuari, izapidetu dadin, elkarte eta GKE nafarrak kontzeptualki zehaztuko dituen, 7/2009 Foru Legeko 2. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta zehaztuko duena, halaber, zein lurralde-esparrutan gauzatuko dituzten elkarte eta GKE horiek beren jarduerak.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 25. artikulua aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ERRETIRATUA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 24an egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 25. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroa Bai parlamentu-taldeak erretiratu izanari dagokionez.

Foru Lege proposamena 2011ko otsailaren 18ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testuategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Lege proposamen bat onetsi zuen, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testuategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena, Kongresuaren Mahaira bidaltzeko, Konstituzioaren 87.2 artikulua xedatutakoarekin bat.

Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testuategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Hainbat elkartek, organizaziok, taldek eta erakunde publikok –besteak beste, Nafarroako Arartekoak– salatu dituzte eta diskriminatzailetzat hartu dituzte zenbait negozio juridikotan jasotako klausulak, zeinen arabera zenbait prestaziotatik eta zerbitzutatik kanpo uzten baitira GIB/HIESa duten pertsonak. Kasurik gehienetan, hori da modu esplizitu eta banakakoan identifikatzen den gaixotasun bakarra. Bazterketa horrek, orobat, ondorioak dakarzkie ukitutako pertsonen, beren

eskubide konstituzionalak normal baliatzea eragozten baitie.

Talde eta pertsonen bazterketa hori, bete-betean ezarria eta alde batek besteari inposatua, Espainiako Konstituzioko 9.2 eta 14. artikuluek ezartzen duten berdintasun-printzipio oinarrikoaren aurkakotzat hartu behar da. Arau horrek botere publikoak eta herritarrak lotzen ditu.

Itunak ezartzeko askatasuna, zuzenbide pribatuak aldeei aitortzen diena, ezin da erabili bizitza sozialeko taldeak gaixotasun bat izate hutsagatik diskriminatzeko estaldura gisa. Askatasun zibilarren edo borondatearen autonomiaren muga dira legea, pertsonaren duintasuna eta besteen eskubideak, besteak beste nortasunari eta duintasunari berez datzekienak, Konstituzioko 10.1 artikulua ezarritako balioak direnak.

Hortaz, lege bat behar da, ezartze aldera aldeetako bat GIB/HIESa edukitzeagatik edo seropositiboa izateagatik diskriminatzen edo baztertzeko duen edozein klausula baliogabea eta eragingabea dela.

Helburu hori lortzeko proposatzen da xedapen gehigarri bat gehitzea Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testuateginari, zeina azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi baitzen, espresuki jasotze aldera klausula horien baliogabetasuna eta eragingortasunik eza. Azken xedapen bat ere jarri beharra dago, urtebeteko epe arrazoizkoa emate aldera Espainiako Gobernuari, Kongresuan lege proiektu bat aurkez dezan, lege hau aplikatzen den harreman juridikoetan ondorio baztertzailerik berberak eragiten dituzten beste gaixotasun batzuei ere.

Artikulu bakarra. Kontsumitzaile eta Erabil-tzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina, aza-roaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretu-aren bidez onetsia, honela aldatuta gelditzen da:

Bat. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, ego-nen den bakarra. Hona:

“Xedapen gehigarri bakarra. Zenbait klausula-ren baliogabetasuna eta eraginkortasunik eza.

1. Aldeetako bat GIB/HIESa edukitzeagatik baz-tertzen duten klausulek, estipulazioek, baldintzek edo itunek ez dute baliorik izanen eta ez-jarritzat hartuko dira.

2. GIB/HIESa daukanak xedapen honetan eza-rritakoari uko egiteak ere ez du baliorik izanen.”

Bi. Azken xedapen berri bat gehitzen da, hona-ko testuarekin:

“Azken xedapenetako laugarrena. Beste gaixo-tasun batzuk ere aintzat hartzea.

Espainiako Gobernuak urtebeteko epean aur-keztuko du Lege proiektu bat, zeinaren bidez eza-rriko baita Lege honetako printzipioak aplikatuko zaizkiela harreman juridikoetan ondorio baztertzaile berak eragiten dituztela iritzi ahal zaien beste gaixotasun batzuei ere.”

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara-tzen den egun berean sartuko da indarrean, eta sinatzen diren klausula, estipulazio, baldintza eta itunei nahiz jadanik sinatuta egonik aplikatzekoak direnei aplikatuko zaie.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait espezie galiforme kontserbatzeko eta leheneratzeko neurriak har ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait espezie galiforme kontserbatzeko eta leheneratzeko neurriak har ditzan." Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2011ko martxoaren 4ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait espezie galiforme kontserbatzeko eta leheneratzeko neurriak har ditzan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Natura 2000 Sarearen garapenaren testuinguruan ekintza eta neurri berariazkoak ezar ditzan, zenbait espezie galiforme kontserbazio-egoera onean mantentzera bideratuak. Horren barruan sartuko dira, gutxienez ere, basoilarra, eper grisa eta eper zuria.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetz-esparruak susta ditzan Pirinioetako mendigunearen esparruan, proposatutako ekintzek eta neurriek ezaugarri homogeenak izan ditzaten eta horien koordinazioa eta jarraitutasuna ahalbidetu dezaten.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatzeko eta garatzeko plan bat egin eta abian jartzeari buruz legebiltzar honek onetsitako ebazpena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatzeko eta garatzeko plan bat egin eta abian jartzeari buruz legebiltzar honek onetsitako ebazpena."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betetz, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatzeko eta garatzeko plan bat egin eta abian jartzeari buruz legebiltzar honek onetsitako ebazpena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentu honen erabakia bete dezan, Foru Komunitateko ikus-entzunezkoen sektorearen dinamizazioari eta garapenari buruzko plan bat prestatze eta abiarazte aldera. Honako premisa hauek abiapuntu izanen ditu:

1. Irrati-eskaintzaren areagotzea, eman gabe dauden lizentzien administrazio-emakidaren bitartez.

2. Irrati digitalaren garapenari buruzko azterlan bat egitea. Eta, epe ertainean, erregioiko irrati

publiko bat abiarazteko aukera aztertzea, modalitate tekniko honetan.

3. Nafarroako telebista-emisoreekin lankidetzan aritzeko sistema-esparru bat, haien lehiakortasuna hobetzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak LTDaren sintonizazioari buruz 2008ko martxoaren 17an emandako Ebazpena, PSNk proposatu eta parlamentutalde guztiek onetsia, garatzea, Nafarroan lurralde mugakideetako LTDko kate autonomikoak hartu ahal izateko lankidetzaren autonomikorako hitzarmen egokiak eginez Aragoi, Euskadi eta Errioxarekin, eta baimenduz Nafarroako LTDko kateak autonomia mugakideetan emititzea. Hitzarmen horiek, betiere, alderdiak lotu behar dituzte Foru Komunitatearen errealitate sozial eta instituzionala errespetatzeko konpromisora. Industria Ministerioari LTD kate anizkoitz bat eskatzea, aurrekoari euskarria emanen diona.

5. Ikus-entzunezko cluster bat sortu eta abiaraztea.

6. Ikus-entzunezko Zientzia eta Arteen Goi mailako Institutu bat sortzearen bideragarritasunari buruzko azterlana. Institutu horrek balizko loturak izanik NUPekin bere garapen-planen barrenean, eta, batez ere, enpresen sektorearekin, modua eman behar luke Nafarroa erreferente bihurtzeko, bai nazioan eta bai nazioartean.

7. Irrati-eskaintza gehitzea, Corporación RTVE-rekin hitzarmen bat sinatuz Nafarroan Radio 4 abiarazteko. Ezaugarriak: instituzionala eta zerbitzu publikoa.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertsolaritza kultur intereseko ondasun ez-material deklaratzeko espedientea has dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertsolaritza kultur intereseko ondasun ez-material deklaratzeko espedientea has dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertsolaritza kultur intereseko ondasun ez-material deklaratzeko espedientea has dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bertsolaritza interes kultureko ondasun ukiezina deklaratzeko espedientea ireki dezan, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu-agentzien jarduera kontrola dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu-agentzien jarduera kontrola dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu-agentzien jarduera kontrola dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Kontrola dezan enplegu-agentziak lege-parametroei jarraikiz jarduten direla: enplegu-agentziek Nafarroako Enplegu Agentziaren baimenarekin jardun behar dute.

2. Bitartekotza susta dezan, enplegu-agentziak eskaini behar du etxeko lana.

3. Administrazio publiko eskudunek elkarrekin eratzeko susta dezaten, bai alderdi kontratatzailean bai alderdi kontratatuan, alait lasterren egin ahal izan daitezkeen lan-baldintzak eta alderdien segurtasun juridikoa hobetuko dituzten lan-hitzarmen kolektiboak.

4. Lan-ikuskaritza bultza dezan, abusuak ekiditeko eta bizitoki partikularren bortxaezintasunaren printzipioa errespetarazteko.

5. Espainiako Gobernuari eska diezaien alda dezan abuztuaren 1eko 1424/1985 Errege Dekretua, familiaren etxeko zerbitzuaren izaera bereziko harremana arautzen duena.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Ignazio etorbideko Jauregiko fatxadan ageri den Nafarroako armarrria ordez dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Ignazio etorbideko Jauregiko fatxadan ageri den Nafarroako armarrria ordez dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Ignazio etorbideko Jauregiko fatxadan ageri den Nafarroako armarrria ordez dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala ordez dezan Nafarroako Jauregiaren San Ignazio etorbideko fatxadako goiko triangeluan ageri den Nafarroako Armarrria, bai eta gure erkidegoan egon litekeen beste edozein sinbolo frankista ere.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu-emanen ekin diezaien, txirrindularien 2012ko Espainiako Itzulia Nafarroan, Iruñean, has dadin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu-emanen ekin diezaien, txirrindularien 2012ko Espainiako Itzulia Nafarroan, Iruñean, has dadin".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu-emanen ekin diezaien, txirrindularien 2012ko Espainiako Itzulia Nafarroan, Iruñean, has dadin

1. Nafarroako Parlamentuaren ustez garrantzitsua da baliatzea Espainiako Txirrindularitza Itzulia bezalako gertakari bat antolatzeak dakarren plataforma, eta, zehazki, Espainiako 2012ko Itzulia hasteko egoitza izateak dakarrena, gertakari hori ustiatze aldera Nafarroa nazioan nahiz nazioartean turismoaren eta kulturaren ikuspuntutik proiektatzeko plataforma gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu-emanetan has dadin txirrindularien 2012ko Espainiako Itzuliaren antolatzaileekin, Nafarroan, zehazki Iruñean, has dadin 2012ko Espainiako Itzulia eta hori hala izan dadin bete beharreko baldintzak zehatz daitezen.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iruñeko Udalarekin eta gertakari horretan parte hartzeko interesa erakusten duten toki entitateekin batera ahaleginak egin ditzan, Nafarroaren irudiaren proiektiorako programa ahalik eta osatuena eta onuragarriena taxutze aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratzen du Euskalerrria Irratiaren nahi gabeko irregulartasun-egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jarrera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratzen du Euskalerrria Irratiaren nahi gabeko irregulartasun-egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jarrera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratzen du Euskalerrria Irratiaren nahi gabeko irregulartasun-egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jarrera

1. Nafarroako Parlamentuak deitoratzen du Euskalerrria Irratiaren nahi gabeko irregulartasun-egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jarrera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arazo honi konponbidea eman diezaion, irradi-eskaintza handituz eta lizentzia gehiago emateko aukera emanez, hartara konponduko baitira eginiko irregulartasunak.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa 2012 Plana bete dezan, Nafarroako ekonomia dinamizatzeko elementu gisa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa 2012 Plana bete dezan, Nafarroako ekonomia dinamizatzeko elementu gisa”.

Legebiltzarrak, 2011ko martxoaren 24an egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko otsailaren 25eko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Ministerio Fiskala premiatzen da justizia auzitegie-tan esku har dezan, Nafarroan atxilotutako pertsonen tratatu txar eta torturei buruz jakitera emandako testigantzak argitze aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Ministerio Fiskala premiatzen da justizia auzitegie-tan esku har dezan, Nafarroan atxilotutako pertsonen tratatu txar eta torturei buruz jakitera emandako testigantzak argitze aldera”.

Legebiltzarrak, 2011ko martxoaren 24an egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko martxoaren 18ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea toki entitateak finantzatzeko irizpideak zuzentzat eta egokitzat jotzen diren.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 24an egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela José Luis Izco Biarge jaunak aurkezturiko galdera, toki entitateak finantzatzeko irizpideak zuzentzat eta egokitzat jotzen diren jakitekoa, erretiratu izanari dagokionez.

Galdera hori 2011ko martxoaren 11ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko ea udalek ematen dituzten zerbitzuak egokitzat jotzen diren ala haien eskumenak gehitu beharko lirатеkeen.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 24an egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela José Luis Izco Biarge jaunak aurkezturiko galdera, udalek ematen dituzten zerbitzuak egokitzat jotzen diren ala haien eskumenak gehitu beharko lirатеkeen jakitekoa, erretiratu izanari dagokionez.

Galdera hori 2011ko martxoaren 11ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzea

Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzea.

Legebiltzarreko Mahaiaren 2007ko urriaren 8ko Erabakiaren bitartez onetsitako Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginako artikulu, idatz-zati, xedapen eta idazpuru hauetan, ondotik adierazten diren aldaketak sartzen dira, adierazitako moduan:

15. artikulua.

Beste idatz-zati bat, 4.a, erantsiko zaio 15 artikuluari. Honela dio, hitzez hitz:

“4. Urtero, urtarrilean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira foru parlamentari guztiek aurreko urtean jasotako ordainsariak, edozein dela ere aukeratu duten ordainsari-mota.”

23. artikulua.

23. artikulua amaieran honako testua gehitzea proposatzen da:

“Eta Nafarroako Gobernuak kideak lotzen dituzten printzipio etiko eta jokabidezko berei lotuta egonen dira.”

31. artikulua.

31. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“31. artikulua. 1. Honakoak hartuko dira atxiki gabeko parlamentaritzat:

a) Aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera, hauteskundeetara aurkeztu ziren hauteskunde-zerrendako alderdi politiko, hauteskunde elkargo edo koalizioari dagokion parlamentu-taldean sartzen ez diren foru parlamentariak.

b) Kide diren parlamentu-taldetik joaten diren edo hartatik kanporatuak diren foru parlamentariak. Bi inguruabar horiek Parlamentuko Mahaiari jakinarazi beharko zaizkie, ezagut ditzan eta behar diren eraginak izan ditzaten.

2. Atxiki gabeko parlamentariak legegintzaldi osoan eutsiko diote izaera horri, salbu eta hauteskundeetara aurkeztu ziren hautagai-zerrendako alderdi politikoari dagokion parlamentu-taldera berriz sartzen badira, betiere haren eledunak berriaz horretarako baimena eman ondoren.

3. Parlamentari ez atxikiaren izaerak berarekin ekarriko du parlamentu-organotan jatorrizko parlamentu-taldeak proposatuta betetzen diren karguak eta postuak galtzea.

4. Atxiki gabeko parlamentariak izanen dituzte foru parlamentariak banaka erregelamendu bidez aitortutako eskubide berak. Mahaiari egokituko zaio, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, eskubide horietaz baliatzearekin zerikusia duten gai guztiak ebaztea.

5. Atxiki gabeko parlamentari bakoitzak eskubidea izanen du batzorde bateko kidea izateko. Batzorde hori zein den Parlamentuko Mahaiak zehaztuko du, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren.

6. Legebiltzarreko Mahaiak egokitzen dituen bitarteko materialak emanen dizkie atxiki gabeko parlamentariak, beren eginkizunak bete ditzaten, eta soilik 15. artikuluan aurreikusitako sari ekonomikoak egokituko zaizkie.”

32. artikulua.

32. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“32. artikulua. 1. Foru parlamentari izaera Nafarroako Parlamentuaren eratze bilkuraren ondoren lortzen duten foru parlamentariak hauteskundeetara aurkeztu ziren hauteskunde-zerrendaren taldeari atxiki beharko zaizkio izaera lortu eta bost eguneko epean, Legebiltzarreko Mahaiari egindako idatzi baten bidez. Idatzi horretan jasota geratu beharko da taldeko eledunaren oniritzia. Hauteskunde-zerrenda horretako kideek ezin badute talde berekirik sortu, Askotariko taldean sartuko dira.

2. Dagokien taldean sartzen ez diren parlamentariak atxiki gabeko parlamentarizat hartuko dira.”

33. artikulua.

33. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“33. artikulua. 1. Askotarikoa ez beste parlamentu-talde bat osatu eta gero, talde hori bi kide baino gutxiagorekin gelditzen bada, taldea automatikoki deseginen da, eta haren kideak Askotariko taldeko kide izatera pasatuko dira automatikoki.

2. Taldea eratu eta gero kide bat aldi baterako galtzeagatik bi parlamentari baino gutxiagorekin gelditzen diren parlamentu-taldeek parlamentu-talde moduan iraunen dute, foru parlamentari berriak bere kargua hartu eta bost egun pasatu arte.

Bost egun pasatuta, foru parlamentaria talde izaten jarraitu duen parlamentu-taldean sartzen ez bada, taldea desegin egingen da eta haren kideak Askotariko taldea osatzera pasatuko dira automatikoki.”

34. artikulua.

34. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“1. Aurreko artikuluan aipatzen diren parlamentarietaz gainera, Askotariko taldea osatuko dute beren parlamentu-taldea eratzeko 29.1 artikuluan exijitutako gutxieneko parlamentari kopurura iristen ez diren alderdi politiko, hauteskunde elkargo edo koalizioetako foru parlamentariak.”

40. artikulua.

40. artikuluko 2. idatz-zatiari beste lerrokada bat gehitu zaio. Hauxe dio:

“Mahaikide batek proposatuta, Legebiltzarreko Mahaiak parlamentu-eztabaidetan sortutako

zalantzazko gaiei buruzko aginduzko irizpideak finkatu ahalko ditu ondoren.”

44. artikulua.

44. artikuluan zortzigarren eginkizuna gehituko da, eta orain arteko zortzigarrena bederatzigarrena izatera pasako da. Hona testua:

“Zortzigarrena. Erregelamenduko 37.2 eta 129.2 artikuluetan aurreikusitako errekurtsioak ebaztea.”

45. artikulua.

3. idatz-zatia gehituko zaio 45. artikuluari. Honela dio, hitzez hitz:

“3. Parlamentarietaz batzorde aretoan eserlekua hartuko dute, atxikita dauden parlamentu-talderen arabera. Talde bakoitzarentzako gordetako tokia Mahaiak zehaztuko du, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, talde bakoitzak adierazitako lehentasunen arabera eta hauteskundeetan lortutako boto-kopuruaren hurrenkeran.”

58. artikulua.

58. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“1. Batzorde arruntak dira Foru Araubidekoa, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordea eta Mahaiak legegintzaldi bakoitzaren hasieran zehazten dituenak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren; betiere, foru erkidegoko Administrazioaren departamentuen arabera izanen dira.”

IV. tituluko III. kapitulua

IV. tituluko III. kapituluan 4. atala sortzen da. Hona bere izena:

“Europako Gaietarako lan-taldea”

63 bis artikulua.

63. bis artikulua sortzen da, IV tituluko III. kapituluko 4. atalaren barruan, honako edukiarekin:

“63. bis artikulua.

1. Europako Gaietako Lan-taldea izanen da organo eskuduna Gorte Nagusiek igortzen dituzten Europar Batasuneko legegintzako egintza proiektuek subsidiarotasunaren printzipioa urratzen ote duten esateko. Lan-talde horrek, zenbat parlamentu-talde egon, hainbeste kide izanen ditu. Parlamentu-taldeek beren ordezkaria izendatuko dute batzordeetako kideak izendatzen dituzten aldi berean.

2. Subsidiarotasun printzipioa Europar Batasuneko legegintzako egintzetako proiektuetan bete-

tzen den kontrolatzeko prozedurak honako arauak izanen ditu:

Lehena. 1. Europar Batasuneko legegintzako proposamen bat jaso ondoren, Parlamentuko lehendakariak aipatu lan-taldeko kideei igorriko die, posta elektronikoaren bidez. Halaber, Nafarroako Gobernuari ere igorriko zaio, bide bera erabilita, Gobernuak, bi asteko epean, proposamenari buruzko txostena eman dezan, eta, zehazki, legegintzako ekimena subsidiaritatearen printzipioarekin bat etortzeari buruz duen iritzia eman dezan. Txosten hori, jaso ondoren, lan-taldeko kideei igorriko zaie.

2. Halaber, Parlamentuko zerbitzu juridikoei igorriko zaie, txosten bat egin dezaten legegintzako egintza proiektuak Nafarroak arlo horretan dituen legegintzako eskumenetan duen eraginari buruz, subsidiaritatearen printzipioa betetzeari dagokionez. Txosten hori bi asteko epean egingen da, eta legelari nagusiak lan-taldeko kideei igorriko die.

3. Parlamentuko lehendakariak zilegi izanen du aurreko idatz-zatietan aipaturiko epeak luzatzea, beharrezkotzat jotzen duenean.

Bigarrena. Kasuan kasuko txostenak jaso ondoren, Parlamentuko lehendakariak lan-taldearen bilkura deituko du, gutxienez ere 48 ordu lehenagotik, eta deialdian adieraziko da lan-taldearen lanak amaitzeko epemuga.

Hirugarrena. Ezarritako epearen barruan, lan-taldeak eskatu ahalko du arau-proiektuari dagokion alorrean adituak diren funtzionarioen eta pertsonen agerraldia. Lan-taldeak zehaztuko du bere lanen egutegia, halako moduz non egin dezakeen irizpena amaituta egonen baita deialdian ezarritako egunerako.

Laugarrena. Lan-taldeak uste badu aztertu duen proiektuak subsidiaritatearen printzipioa urratzen duela, arrazoitutako irizpen bat egin eta Parlamentuko lehendakariari igorriko dio, horrek Gorte Nagusietara igor dezan. Aldiz, uste badu arau-proiektua aipatu printzipioarekin bat datorrela, iritzi horren berri emanen dio lehendakariari, horrek Gorte Nagusiei jakinaraz diezaien, lan-taldeak hala eskatzen badu espresuki.

Bosgarrena. Irizpen arrazoitua Gorteetara igortzeko epea lau astekoa izanen da gehienez, legegintzako egintza proiektua Nafarroako Parlamentuan jasotzen denetik hasita.

3. Lan-taldearen lanak ohiko bilkuraldietatik kanpo egin behar direnean, legebiltzarreko lehendakariaren esku geratuko da lan horiek egiteko beharrezkoak diren egunak gaitzeko ahalmena.”

65. artikulua.

65. artikuluko 1. idatz-zatiari lerrokada bat gehitzen zaio, hauxe dioena:

“Talde bakoitzarentzako gordetako eserlekuak Mahaiak zehaztuko ditu, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, talde bakoitzak adierazitako nahiaren arabera eta hauteskundeetan lortutako boto-kopuruaren hurrenkeran.”

70. artikulua.

70. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“3. Lehendakariak Parlamentuko legelarien, Comptos Ganberako legelarien edo Nafarroako Gobernuko aholkulari juridikoen artetik legelari bat proposatuko du legelari nagusi izateko, eta Mahaiak izendatuko du eta kenduko du kargutik.”

71. artikulua.

71. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“1. Parlamentua urtean bi bilkuraldi arruntetan bilduko da: lehenengoa irailetik abendura, eta bigarrena urtarriletik ekainera.”

74. artikulua.

74. artikuluko 6. idatz-zatia kentzen da.

76. artikulua.

76. artikuluko 2. idatz-zatiko lehenengo esaldia aldatzea. Hona testu berria:

“Batzordeen bilkurak ez dira jendaurrekoak izango.”

82. artikulua.

82. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea. Hona testu berria:

“2. Lehendakaritzak errespetua, ordena eta adeitasun parlamentarioa gordetzen direla zainduko du uneoro.”

93. artikulua.

93. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“2. Foru parlamentarien botoa pertsonala eta delegaezina da, honako kasuetan izan ezik:

a) Amatasuna dela-eta Osoko Bilkuraren saioetara joaterik ez duen parlamentariak bere botoa beste parlamentari baten esku utzi ahalko du, erditzearen ondorengo sei asteetan.

b) Behar bezala egiaztatutako ospitaleratze baten edo gaixotasun larri baten ondorioz Osoko

Bilkuraren saioetara joaterik ez duten parlamentariak beren botoa beste parlamentari baten esku utzi ahalko dute.

Botoa delegatzeko eskaria Parlamentuko Mahaiari zuzendutako idazki batez egingen da. Idazki horretan, botoa delegatzen duen pertsonaren izena eta boto-delegazioa jasotzen duen pertsonaren izena agertuko dira, bai eta delegazio hori zein osoko bilkuratan erabili beharko den edo, kasua bada, delegazioak zenbat iraunen duen. Mahaiak, eskaerari buruz ebazterakoan, boto delegatua emateko prozedura ezarriko du.”

104. artikulua.

104. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzea. Hona testu berria:

“4. Ez da onartuko nor bere botoa azaltzea.”

106. artikulua.

106. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“2. Zenbaketa honetatik salbuetsiko dira uztaila eta abuztua, salbu eta gaia bilkura berezi baten gai zerrendan sartuta ez badago edo Erregelamendu honetako 14.3 artikuluan aurreikusitako epea baldin bada. Legebiltzarreko Mahaiak ezarriko du zer egun bihurtu baliodun, betiere aipatu bilkura berezia egin ahal izateko izapideak betetzeke, ez beste ezertarako.”

114. artikulua.

114. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Hona testu berria:

“1. Legebiltzarreko Mahaiak kasuan-kasuan hartu beharreko neurriak hartuko ditu hedabideei Parlamentuko organoen jarduerari, proposamenei eta ebazpenei buruzko informazioa emateko.”

156. artikulua.

156. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzea. Hona testu berria:

“4. Kontuen Auzitegiak Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzei buruzko Lege Organikoaren 18. bis artikuluko 3. idatz-zatiak aipatzen duen irizpena Parlamentuari bidaliz gero, Mahaiak, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, behar diren neurriak hartuko ditu, kasua bada.”

157. artikulua.

– 157. artikuluko 2. idatz-zatiari lerrokada bat eranstea; honela dio, hitzez hitz:

“Halaber, gutxienez ere Legebiltzarreko kideen gehiengo ordezkatzen duten parlamentu-taldeek Osoko Bilkurako eztabaida hasi aurretik aurkezten

dituzten “in voce” zuzenketak izapidetzerantz onartuko dira.”

– 157. artikuluko 3. idatz-zatiaren bukaeran esaldi bat sartzea, honakoa dioena:

“Eztabaida horretan, lehenbizi, ekimena proposatu duenak hitz egingen du.”

VI. tituluko IV. kapituluaren idazpurua

– VI. tituluko IV. kapituluaren idazpurua aldatzea. Hona testu berria:

“Foru legearen indarra duten Gobernuaren xedapenak”

159. bis artikulua berria.

159. bis artikulua berria gehitzen da, VI. tituluko IV. kapituluaren. Hona haren testua:

“159. bis artikulua.

1. Foru lege dekretu bat baliozkotzei edo indargabetzei buruzko eztabaida eta bozketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen dira edo, kasua bada, Batzorde Iraunkorrean, hura aldarrikatu eta 30 eguneko epearen barruan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzei buruzko Lege Organikoko 21.bis artikuluan ezarritakoari jarraituz. Nolanahi ere, foru lege dekretu bat gai zerrendan sartu ahalko da, eztabaida eta bozka dadin, hura Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman bezain laster.

2. Gobernuak kide batek Legebiltzarrean azalduko ditu hura aldarrikatzeko izan dituen arrazoiak, eta ondorengo eztabaida osoko eztabaidetarako ezarritakoaren arabera egingen da.

3. Eztabaida amaituta, bozketa egingen da, eta hartan ulertuko da baiezko botoak baliozkotzearen aldekoak direla, eta ezezko botoak, berriz, indargabetzearen aldekoak.

4. Foru dekretu lege bat baliozkotu ondoren, lehendakariak galdetuko du ea parlamentu-talderen batek nahi ote duen foru lege proiektu baten gisara izapide dadila. Baiezkoan, Legebiltzarrak eskaera horri buruz erabakiko du. Alde bozkatzen baldin badu, foru lege proiektu baten gisara izapidetuko da presako prozeduraz, eta ez dira onartuko proiektua itzultzea eskatzen duten osoko zuzenketak.

5. Batzorde Iraunkorrak presako prozeduraren araberrako foru lege proiektuaren gisara izapidetu ahalko ditu kasua bada, Gobernuak legegintzaldien artean ematen dituen foru lege dekretuak.

6. Foru lege dekretu bat baliozkotzeko edo indargabetzeko erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.”

163. artikulua.

163. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“1. Foru Diputazioak, foru lege bat aldatzea edo indargabetzea ekartzen duten edo betearazpenerako legegintzako neurriak eskatzen dituzten hitzarmenak Estatuarekin formalizatzeko, aurretik Parlamentuaren baimena lortu beharko du.”

165. artikulua.

165. artikuluko 1. idatz-zatiaren amaieran esaldi hau gehitzea, amaierako puntuaren ordeztu koma bat ipiniz:

“ baldin eta horrek foru legeren bat aldatu edo indargabetzea edota betearazpenerako legegintzako neurriak hartu behar izatea badakar.”

171. artikulua.

171. artikuluko lehenengo hitzak aldatzea. Honela agertuko da idatzita:

“Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria.”

172. artikulua.

172. artikuluko azken hitzak aldatzea. Hauxe izanen da testua:

“ Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari-tzarako hautagai bat proposatuko du.”

173. artikulua.

– 173. artikuluko zazpigarren araua aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Zazpigarrena. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin eta gero hiru hilabete iragan eta hautagairik aurkezten ez bada edo aurkeztu direnetarik inor hautatu ez bada, Parlamentua deseginen da eta beste hauteskunde batzuk deituko dira. Hauteskunde dei horretatik sortzen den Parlamentu berriak lau urteko legealdi osoa irauten du.”

– 173. artikuluko zortzigarren arauko azken hitzak aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“ hautagaia Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari izendatua izan dadin.”

183. artikulua.

183. artikuluko 3. idatz-zatiko lehen hitzak aldatzea. Hona testu berria:

“3. Bigarren bilkuraldia bukatzen denean.”

184. artikulua.

184. artikuluko 3. idatz-zatiko azken-aurreko esaldia aldatzea. Hona testu berria:

“ Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren.”

190. artikulua.

190. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzea. Hona testu berria:

“7. Bigarren bilkuraldiaren amaieran erantzuteke dauden galderak idatziz erantzunen dira hurrengo bilkuraldia hasi baino lehenago, non eta galdera aurkeztu duen foru parlamentariak ez duen adierazten galderari hurrengo bilkuraldi horretarako eutsi nahi diola, amaitu den bilkuraldiaren amaieraren ondoko bost egunetan.”

191. artikulua.

– 191. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu eta testu hau ipintzea:

“2. Aurreko artikuluko 4. idatz-zatian ezarritakoren arabera izapidetuko dira.”

– 191. artikuluko 4. idatz-zatiko lehen hitzak aldatzea. Hona testu berria:

“4. Bigarren bilkuraldia bukatzen denean.”

194. artikulua.

194. artikulua kentzea.

195. artikulua.

195. artikuluari 2. idatz-zatia gehitzea. Egungo testua 1. idatz-zatia izatera pasako da. Hona testua:

“2. Parlamentu-taldeek eskubidea izanen dute gutxienez ere beren mozioetako bat osoko bilkuretako gai zerrendan sar dadin. Halaber, adierazi ahalko dute beren mozioetatik zein sartu nahi duten bilkura horretako gai zerrendan, Osoko Bilkura egin baino hamar egun lehenago Mahaiari jakinarazten badiote.”

200. artikulua.

– 200. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letra aldatzea. Hona testu berria:

“c) Aurreko letrako mintzaldiek ez dute hogeita hamar minutu baino gehiago iraunen.”

– 200. artikuluko 2. idatz-zatiko f) letra aldatzea. Hona testu berria:

“f) Eztatanda bukatzen denean, epe bat irekiko da, zeinaren iraupena Legebiltzarreko lehendakariak erabakiko baitu, eta epe horretan parlamentu-taldeek eta Parlamentuko Askotariko taldeko foru parlamentariak bost erabaki proposamen aurkeztu

ahalko dizkiote Mahaiari, gehienez ere. Mahaiak eztabaidagaiarekin kongruente diren proposamenak onartuko ditu. Haien eztabaida eta bozketa Erregelamenduko 197. artikulua xedatutakoari jarraituz egingen dira.”

202. artikulua.

– 202. artikuluko 5. idatz-zatiko lehenengo lerrokada aldatzea. Hona testu berria:

“5. Nafarroako Gobernuak eskatuta deitzen diren informazio bilkurak Foru Diputatuaren azalpenarekin hasiko dira; azalpen horren gehieneko iraupena hogeita hamar minutukoa izanen da. Azalpena bukatu ondoren, lehendakariak aldi baterako eten ahalko du bilkura, batzordeko kideek informazioa aztertzeko beta izan dezaten. Bilkura berriro hasten denean, parlamentu-talde bakoitzeko ordezkariak eta Askotariko taldeko parlamentariak hamar minutuz mintzatu ahalko dira, beren jarrerak argitzeko, zerbait galdetzeko edo oharren bat egiteko. Foru diputatuak edo laguntzen dioten aholkulari edo funtzionarioek horiei erantzunen diete.”

– 202. artikuluko 6. idatz-zatiko lehenengo lerrokada aldatzea. Hona testu berria:

“6. Eledunen Batzarrak eskatuta deitzen diren informazio bilkurak proposamena egin duen parlamentu-taldeko ordezkariaren azalpenarekin hasiko dira. Azalpena bukatu ondoren, lehendakariak aldi baterako eten ahalko du bilkura, batzordeko kideek eta foru diputatuak azalpena aztertzeko beta

izan dezaten. Bilkura berriz hasten denean, foru diputatua mintzatu da, eskatutako gaiari buruzko azalpenak emateko, gehienez ere hogeita hamar minutuz. Azalpena bukatu ondoren, lehendakariak aldi baterako eten ahalko du bilkura, batzordeko kideek azalpena aztertzeko beta izan dezaten.”

– Beste idatz-zati bat erantsiko zaio 202. artikuluari; honela dio, hitzez hitz:

“7. Aurreko bi idatz-zatietan diputatuentzat ezarritako denbora-mugak ez zaizkio aplikatuko Nafarroako Gobernuko lehendakariari.”

212. artikulua.

212. artikuluko 3. idatz-zatiko azken esaldia aldatzea. Hona testu berria:

“Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren;”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

1. Erregelamenduaren aldaketa hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, eta aldaketa onetsi ondoko legegintzaldian Nafarroako Parlamentua eratzeko bilkura egiten den egun berean hartuko du indarra.

2. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari aldaketa honek indarra hartu eta lau hilabeteko epean Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateratua egiteko, zein-an jasoko baitira onetsitako aldaketak.